



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

FAMILIEN ETA FAMILIA- ETXEEN INKESTA

FFEI-2015

2016ko urriaren 11

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo
Espezifikoa*

ATARIKOA

Txostenaren edukia

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Bereziak 2015eko **Familien eta Familia-etxeen Inkesta** (FFEI) txostena aurkeztu du. FFEI Euskal Estatistika Planaren barruko operazioa garatzen duen hurbilketa praktikoa da. **Euskal familien eta familia-etxeen gizarte-arazoak** deitzen da, eta Eusko Jaurlaritzako sail hori da arduraduna. FFEIren helburua familia-etxeek eta familiek dituzten arazoak eta premiak ezagutzea da, baita familiei laguntzeko programak zer neurritan ezagutzen dituzten jakitea ere.

Txostenean, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) familiei eta familia-etxeei buruzko alderdi hauen aurkezpen laburra egiten da:

- a) Familien eta familia-etxeen nahiz horiek osatzen dituzten pertsonen ezaugarri soziodemografiko nagusiak.
- b) Familiek eta familia-etxeek zer gizarte-arazo eta -beharrizan nagusiri egin behar dieten aurre.
- c) Euskal gizartean eragina duten adingabeak eta mendetasuna duten pertsonak zaintzeagatik kargak.
- d) Erakunde publikoek familiei laguntzeko egindako neurri, programa eta prestazio nagusien inguruan duten ezagutza-maila.

Txostenean, euskal familien eta familia-etxeen artean dauden aldeak aztertzen dira, jasotako hainbat neurriren inguruan. Horretarako, kontuan hartzen da familien tipologia, familia-etxearen osaeraren arabera.

2015eko FFEIren emaitzak laburbilduta aurkezten dira, soilik alderdi nabarmenetan arreta jarrita. Txostenarekin batera datorren estatistiken eranskinean, ordea, estatistika-operazioan jorratutako hainbat alderdi zehaztasun osoz aztertzea ahalbidetzen duen informazioa dago.

Zehaztu egin behar da 2015eko FFEIk mende hasieran berriz heldu ziola familia-gaietan eskumena duen Zuzendaritzak bultzatutako estatistikaren ekimenari. Ekimen horretan, FFEIren aurreko bi operazio egin ziren. 2004an eta 2008an gauzatu ziren. 2016an egingo den txosten zehatz batean, hainbat iturri bateratu ondoren, 2004. eta 2015. urteen artean familien eta familia-etxeen egituretan ikusitako aldaketen bilakaeraren azterketa jorratuko da.

Euskal familien eta familia-etxeen hurbilketaren alderdi orokorrak

Lan-metodologian, gure familia-etxeen laginean sartuta dauden familiei eta familia-etxeei inkesta bat ematen zaie. Lagin hori ausaz ateratzen da, eta FFEIren jarduketaren oinarria osatzen du.

FFEIn, urte osoan edo ia urte osoan ohiko bizileku gisa erabiltzen diren familia-etxebizitza guztiei zuzenduta dago. Euskal Autonomia Erkidegoko esparru osoan gauzatzen da operazioa, eta EAEko eta dagokien lurralde historikoen esparru geografikoan informazioa ematen da¹.

FFEIk euskal familien eta familia-etxeen ezaugarriei buruzko informazioa jasotzen duen inkesta zehatzeko datuetan oinarrituta dago, baita horiei eragiten dieten arazoetan ere. Datuak lortzeko erreferentziazko biztanleen artean, FFEIren informazio-bilketaren xedea osatzen duten familia-etxebizitza nagusien lagina osatzen duten pertsonak eta familia-nukleoak daude.

FFEIk Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak arlo horretan eginiko lehen aztergaitik (2004. urtean egin zen) erabili izan duen familien eta familia-etxeen tipologia erabiltzen du. Hala, etxean bizi diren pertsonak eta haien arteko ahaidetasun-harremanak aintzat hartuta, **5 familia-etxe mota nagusi** bereizten dira:

1. Pertsona bakar batez osatutakoak.
2. Ahaide ez diren kide anitzekoak, ahaidetasun-loturarik ez duten bi pertsonak edo gehiagok osatutakoak.
3. Nukleorik gabeko familiak, bi pertsonaz edo gehiagoz osatutakoak baina horien artean senar-emazteen edo seme-alaben arteko harremanik egon gabe.
4. Nukleo bakarrekoak edo nuklearrak, familia-nukleo bakar batez osatutakoak². Seme-alabarik gabeko bikoteek, seme-alabak dituzten bikoteek eta seme-alabak dituzten guraso bakarrek osatzen dituzte nukleo bakarreko etzekoen unitateak.
5. Nukleo bat baino gehiago dituztenak, adibidez, familia-etxean bi nukleo edo gehiago daudenean.

Lehen bi kasuetan ezin da berez familiaz hitz egin ez dagoelako ahaidetasun-harremanez loturiko pertsona-talde bat eta hori da hain zuzen familiaren ezaugarria. Hala ere, bai osatzen dute familia-etxea FFEIren ondorioetarako.

¹ Laginen diseinuan, Saileko OEEK erabili ohi duen eskualdeko egitura hartzen du kontuan. Hala ere, lurralde-dimentsio horretan ez du ustia ketaren garapen zehatzik onartzen.

² Nukleoa izateko, beharrezkoa da bi pertsona seme-alabatasunezko, ezkontzako edo horien antzeko harreman bidez lotuta egotea (izatezko edo eskubidezko bikoteak)

Laugarren mota hainbat azpimotatan banatu daiteke, zer familia-nukleo osatzen duten aintzat hartuta. Azpimota horiek zerikusi handia dute familiaren bizitza-zikloarekin baina baita osatutako edo jatorrizko nukleoko harreman motarekin ere: senar-emazteen edo seme-alaben harremana.

Hala, FFEIn honako hauek bereizten dira:

a) **Ezkontideek** osaturiko nukleoen lau azpimota (bikote-harremanean oinarrituak):

- * **Jaio aurrekoak** (seme-alabarik gabe, beraz, seme-alabak jaio aurretik).
- * **Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak.**
- * **Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak.**
- * **Guraso izandakoak** (seme-alabak emantzipazioaren ondoren).

Mendeko seme-alabak egoteak familia-etxean bizi diren 18 urtetik beherako seme-alabaren baten egoera adierazten du. Egoera hori bera gertatzen da familia-etxean 18tik 29ra bitarteko seme-alabaren bat bizi direnean, okupaziorik gabe edo 30 urtetik gorakoa mendetasunarekin.

Mendetasunik gabeko seme-alabak egoteak familia-etxean mendetasunik gabeko 30 urtetik gorako seme-alabaren bat edo lan-okupazioa duten 18tik 29ra bitarteko seme-alabak.

b) **Ezkontide izandakoek** osatutako nukleoen bi azpimota (ezkontidearen heriotzaren ondorioz edo banaketa/dibortzioaren ondorioz), seme-alabak gurasoen kargura dauden edo ez dauden kontuan hartuta, aurretiaz adierazitako irizpideekin bat etorritik.

c) Ezkontiderik gabeko nukleoen bi azpimota, hau da, guraso bakarrekoak zentzu hertsian eta hauek ere, seme-alabak gurasoen kargura dauden edo ez kontuan hartuta banatzen dira³.

Laginarekin loturiko arrazoiak direla eta, ordea, ezkontide izandakoen azpimotak eta guraso bakarrekoak bateratu egiten dira analisi honetan. Oro har, guraso bakarreko familia gisa definitu dira. Barruan, ezberdinduta daude, familia-etxean dauden seme-alabak mendekoak diren ala ez aintzat hartuta.

³ Hitz lauz, familia-etxe nuklearretarako ezarritako azpibanaketa ere bosgarren mota (nukleo askotakoa) egiaztatzen duten barneko hainbat nukleori aplikatu daiekie. Hala ere, kasu honetan familia-etxe mota bakar bati mugatuta dago, funtsean, hainbat nukleo dituen.

EMAITZA NAGUSIAK

1. FAMILIAK ETA FAMILIA-ETXEAK: Oinarrizko ezaugarri soziodemografikoak

Familia eta familia-etxe motak

EAEko familia-etxeen % 73,2 elkarren artean familia-harremana duten pertsona taldeen inguruan egituratuta daude. Familia-etxe horietan, herritarren guztien % 88,1 EAEko familia-etxeetan pilatzen da.

la kasu guztietan, oinarrian familia duten etxe horiek familia-nukleo baten edo gehiagoren inguruan egituratuta daude: familia-etxe guztien % 71,4 (herritar guztien % 86,5 kontuan hartuta). Familia-etxeen % 1,8 eskas nukleo baten inguruan egituratuta ez dauden hainbat familia-bizikidetzak motari dagokio. Familia-etxe mota horiek herritar guztien % 1,6 biltzen dute.

Familia-nukleo bakar batean bildutako familia-etxeen barruan, seme-alabak dituzten gurasoek osatutakoak dira ugariak. Kopuru osoaren % 35,7 osatzen dute, eta familia-etxeetan bizi diren herritarren gehiengoak, berriz, guztira % 52,8. Gurasoek osatutako familia-etxeen talde horretan, mendeko seme-alabak dituztenak nabarmendu behar dira. Familia-etxe guztien % 28,5 adierazten dute, populazio osoaren % 43,1 aintzat hartuta (% 7,3 eta % 9,7 hurrenez hurren mendeko seme-alabarik ez duten gurasoen familia-etxei dagokienez).

Senar-emazteen familia-etxeek, oinarrian ezkontza- edo bikote-nukleoa dutenak baina seme-alabarik gabe, familia-etxeen beste % 23 adierazten dute, eta populazio osoaren % 19,3 hartzen dute barne familia-etxeetan. Horien barruan, guraso izan diren senar-emazteen familia-etxeak dira nagusi: familia-etxeen % 17,8 eta populazioaren % 14,9. Guraso izan ez diren senar-emazteez osatutako etxeak guztira % 5,2 dira, populazioaren % 4,4 aztertuta.

Guztira, senar-emazteen edo gurasoen familia-egiturek familia-etxeen egitura nagusia mugatzen dute, guztira % 58,7. Bere baitan populazioaren % 72,1 EAEko familia-etxebizitzetan biltzen du.

Guraso bakarreko familia-etxeek, oinarrian seme-alabak dituen aita edo ama dutenak, familia-etxe guztien % 11 adierazten dute, horiekin loturiko populazioaren % 10,9 aintzat hartuta. Horien barruan, ezkontide izandakoak dira nagusi, mendekoak ez diren seme-alabak dituztenak % 5,1 izanik eta mendeko seme-alabak dituztenak % 4,7 izanik (populazio osoaren partaidetza % 4,8 eta % 4,9). Hertsiki guraso bakarrez osatutako familiak % 1,2 dira, eta populazio osoarekin loturiko partaidetzaren proportzio berdina dute.

Nukleo anitzeko familia-etxeak, bere baitan familia-nukleo bat baino gehiago dituztenak, guztira % 1,7 dira. Populazio osoaren % 3,5 hartzen dute barne.

Familia-bizikidetzeta motetatik kanpo egiaztatu da familia-etxeen % 25 kide bakarrekoak direla eta beste % 1,8 bi pertsonarekin edo gehiagorekin osatuta daudela (horien artean ez dute familia-loturarik). Bigarren talde horren partaidetza populazio osoaren antzekoa den bitartean, pertsona bakarreko familia-etxeetan bizi diren pertsonak aztertutako populazioaren % 10,1 osatzen dute.

1. taula				
Familia-etxeak/Familiak eta populazioa familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE 2015. urtea				
(Datu absolutuak eta % bertikalak)				
Motak	2015			
	Familia-etxeak		Pertsonak	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
GUZTIRA	863.556	100,0	2.144.989	100,0
KIDE BAKARREKOAK	215.636	25,0	215.636	10,1
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	15.728	1,8	38.752	1,8
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	15.629	1,8	34.974	1,6
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	198.650	23,0	414.369	19,3
Guraso ez diren ezkontideak	45.190	5,2	95.084	4,4
Guraso izandako ezkontideak	153.460	17,8	319.285	14,9
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	308.602	35,7	1.132.131	52,8
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	245.705	28,5	923.563	43,1
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	62.898	7,3	208.568	9,7
GURASO BAKARREKOA	95.048	11,0	234.378	10,9
Ezkontide izandakoak, mendeko seme-alabekin	40.195	4,7	105.654	4,9
Ezkontide izandakoak, mendeko seme-alabarik gabe	44.322	5,1	102.174	4,8
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	9.129	1,1	23.321	1,1
Mendeko seme-alabarik ez duen guraso bakarra	1.402	,2	3.230	,2
NUKLEO ANITZEKOA	14.262	1,7	74.749	3,5

Iturria: 2015eko FFEI EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Adierazle demografiko nagusiak

2. taulan, EAEko familia-etxeen eta familien ezaugarri demografiko nagusiak zehazten lagungarriak diren oinarritzko zenbait adierazle daude jasota.

2. taula

Oinarrizko adierazle demografikoak familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE 2015. urtea

Motak	2015											
	Familia- etxearen/familiaren batez besteko tamaina	Emakumeak EPn %	Batez besteko adina EPn	16-44 urte EPn		45-64 urte EPn		65 urtetik aurrera EPn	16 urtetik beherako pertsonek bat familia-etxean	6 urtetik beherako pertsonek bat familia-etxean	16-29 urteko pertsonek bat ikasten familia-etxean	Jatorriz beste nazionalitate bat dutenak (EP)
				%	%	%	%	%	%	%	%	
GUZTIRA	2,48	54,2	55,5	28,6	42,4	28,9	24,0	11,0	12,6	7,5		
KIDE BAKARREKOAK	1,00	60,7	61,0	22,4	33,4	44,2	,0	,0	,1	4,0		
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	2,46	51,3	57,8	33,4	27,2	39,4	5,0	5,0	,0	37,1		
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	2,24	46,8	63,7	9,5	45,3	45,2	2,5	1,1	3,5	11,7		
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	2,09	49,8	60,3	21,1	31,2	47,7	,2	,0	,6	4,6		
Guraso ez diren ezkontideak	2,10	48,5	36,2	90,2	9,8	,0	,0	,0	2,1	12,9		
Guraso izandako ezkontideak	2,08	50,2	67,4	,7	37,5	61,8	,3	,0	,1	2,2		
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	3,67	50,0	49,5	37,0	53,7	9,3	55,1	27,2	27,5	8,4		
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	3,76	50,0	45,6	46,4	52,0	1,6	69,1	34,2	34,4	10,2		
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	3,32	50,0	64,5	,4	60,1	39,5	,4	,0	,6	1,5		
GURASO BAKARREKOA	2,47	87,2	58,9	22,3	43,6	34,1	29,1	7,6	19,0	11,4		
Mendeko seme-alabak dituztenak	2,61	86,8	47,8	41,2	53,3	5,5	55,2	14,7	36,2	19,9		
Mendeko seme-alabarik ez dutenak	2,31	87,7	70,8	1,8	33,1	65,1	,9	,0	,4	2,3		
NUKLEO ANITZEKOA	5,24	54,2	60,6	30,7	25,0	44,3	56,2	18,4	26,8	23,7		

Oharra: Familia-etxe edo familiako erreferentziako pertsonen (EP) barruan, familia-etxe erreferentziako pertsona gisa zehaztutakoa eta haren ezkontidea/bikotekidea sartzen dira.

Iturria: FFEI. EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Familien batez besteko tamaina txikia

EAEko familien batez besteko tamaina 2,48 pertsonakoa da. Tamaina handiena nukleo anitzeko familiei egozten zaie, familia bakoitzean 5,24 kide izanik. Horien atzetik daude seme-alabak dituzten familia nuklearrak, batez beste 3,67 izanik. Batez besteko neurria 3,76koa da mendeko seme-alabak dituzten gurasoek osatutako etxeetan, eta 3,32koa mendeko seme-alabarik ez dutenen kasuan. Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien kasuan, kopurua 2,61era murrizten da. Hala, familia mota horien batez besteko neurria 2,31koa da mendeko seme-alabarik ez duten familia mota horietan. Kasu honetan, 2,46 pertsona inguruko batez besteko neurria dute, eta ahaide ez diren kide anitzeko familietan daude.

Kide bakarreko familiak alde batera utzita (1 tamainakoa), batez besteko tamaina txikiena nukleorik gabeko familiei dagokie (2,24), baita ezkontideen familiei ere, bai guraso izan ez direnak (2,10 kide familiako), bai guraso izandakoak (2,08).

Emakumeek pisu handia dute familiako erreferentziazko pertsonen artean, bereziki kide bakarreko familietan eta guraso bakarreko familietan

Emakumeek EAEko familien erreferentziazko pertsonen gehiengoa osatzen dute. Guztira, % 54,2⁴. Gutxiengoa osatzen dute nukleorik gabeko familia-etxeetan (% 46,8 osatzen dute). % 50 inguru osatzeaz gain, oinarrian senar-emazteak edo bikotea duten familia nuklearren kasuan⁵, sexuaren araberako oreka nagusitzen da ahaide ez diren kide anitzeko familietan (% 51,3), eta neurri txikiagoan, nukleo anitzeko familietan (biztanle emakumeen % 54,2).

Emakumeen eginkizunak gora egin du kide bakarreko familien kasuan. Familia horietan, emakumeek osatutako populazioak erreferentziazko pertsonen % 60,7 osatzen du. Hala ere, gehiengoa kide bakarreko familiei dagokie. Familia horien % 87,2 osatzen du, emakumeak nagusi izanik (% 86,8 mendeko seme-alabak dauden kasuetan, eta % 87,7 mendeko seme-alabarik ez dutenen kasuan).

Zahartzearen eragina

Familietan erreferentziazko pertsonen batez besteko handia

EAEko zahartze-prozesuaren eragina nabarmena da familietan. Familia horietako erreferentziazko pertsonen batez besteko adina oso altua da: 55,5 urte. Errealitate hori hainbat faktoreren ondorioa da, eta guztiak daude norabide berean.

⁴ FFEIn erreferentziazko pertsona gisa (edo pertsona nagusi gisa) jasotzen dira familian halakotzat adierazten direnak gehi haien ezkontidea edo bikotekidea. Batez besteko horren bidez, trataera berdina ematen zaio familian erantzukizuna duten pertsonen trataerari.

⁵ Datuak ez du zuzenean % 50 adierazten, sexu bereko ezkontzen ondorioz.

Lehenik eta behin, oinarri nuklearra duten zenbait familietan erreferentziazko pertsonen batez besteko adina 60 urtetik gorakoa da. Zahartuen dagoen taldea mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiena da. Batez beste 70,8 urte dituzte. Kopuru hori ere oso altua da guraso izandako ezkontideen familietan bizi diren bikoteen artean (67,4 urte) eta mendeko seme-alabak dituzten gurasoen familietan (64,5 urte). Batez besteko adina 60 urtetik gorakoa da nukleo anitzeko familia moten pertsona nagusien artean (60,6 urte).

Adierazitako familia moten artean, erreferentziazko pertsonen artean 65 urtetik gorako pertsonen gehiengoa osatzen dute, baina salbuespen batekin: mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen familiak (45-64 urteko erreferentziazko pertsonen % 60,1 65 urtetik gorakoen % 39,5eko). Erreferentziazko proportzioa % 60tik gorakoa da guraso izandako ezkontideen etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxeetan (% 61,8 eta % 65,1 hurrenez hurren).

Bigarrenik, erreferentziazko pertsonen batez besteko adina ere aurrekoa bezain altua da oinarri ez nuklearra duten etxeetan. 63,7 urtera iristen da nukleorik gabeko familien etxeetan, eta 61 urtera kide bakarreko familietan. Ahaide ez diren kide anitzeko familietan, proportzioa oraindik 57,8 urtekoa da. Talde horietan, 65 urtetik gorako pertsonen proportzioa, oro har, gehiengoa da (nahiz eta 45-64 urteko pertsonen parean egon nukleorik gabeko familien etxeen, eta ahaide ez diren kide anitzeko familietan 45tik urtetik beherakoen presentzia nabarmena izan, % 33,4koa).

Hirugarrenik, egiaztatu da mendeko seme-alabak dituzten etxeetan batez besteko adina ere altua da, 45 urtetik gorakoa: 47,8 urte guraso bakarreko familien kasuan, eta 45,6 urte oinarrian senar-emazteak edo bikotea duten gurasoen familietan. Mendeko seme-alabak dituzten talde horietan, pertsona nagusien erdiak baino gehiago 45 urtetik gorakoak dira (% 53,6 gurasoen familietan, eta % 58,8 guraso bakarrekoen familietan).

Guraso ez diren ezkontideen familietan ere oso altua da batez besteko adina. Familia horietako pertsona nagusien % 90,2k 45 urte baino gutxiago badituzte ere, batez besteko adina 36,2 urtekoa da.

Ikasteko adinean dauden biztanle adingabeek gutxiengoa osatzen dute

Zahartzearen eragina alderdi honetan ere ikusten da: familietan adingabeek presentzia urria izatea. Familia horietatik % 24tan besterik ez dago 16 urtetik beherako pertsonaren bat. Proportzio hori % 11ra jaisten da 6 urtetatik beherako biztanleak aintzat hartzean.

16 urtetik beherako biztanle adingabeek presentzia handiagoa dute mendeko seme-alabak dituzten familietan (guztizkoaren % 69,1), nahiz eta proportzioa % 34,2ra murrizten den 6 urtetik beherako adingabeak bere baitan dituztenak aintzat hartuta. 16 urtetik beherako biztanleek % 55-56 inguru osatzen dute mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan (% 55,2) eta nukleo anitzeko etxeetan (% 56,2). 6 urtetik beherako adingabeen presentziak ez du % 20 gainditzen familia edo etxe horietan (% 14,7 eta % 18,4 hurrenez hurren).

Hiru familia mota horien artean, ikasten ari diren 16-29 urteko pertsonaren bat duten familiak ere sartzen dira. Proportzioa % 35etik hurbil dago mendeko seme-alabak dituzten etxe nuklearretan (% 34,4 gurasoen familien kasuan eta % 36,2 guraso bakarreko familien kasuan). Proportzioa zertxobait baxuagoa da nukleo anitzeko etxeetan (% 26,8). Oro har, EAEko % 12,6 eskasetan dago ikasten ari diren 16-29 urteko biztanleen presentzia.

Jatorri atzerritarra duten biztanleen garrantzia ahaide ez diren kide anitzeko familietan, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan eta nukleo anitzeko etxeetan.

EAEko etheen % 7,5ek (gutxienez haien erreferentziazko pertsona batek) izan du espainiarra ez den beste nazionalitate bat jatorrian. Gizarte-errealitate horrek ekarritako familia moten eragina, ordea, oso bestelakoa da, proportzioa zenbait kasutan % 20 ingurukoa edo hortik gorakoa baita. Proportzio altuena ahaide ez diren kide anitzeko familiei dagokie (% 37,1). Nukleo anitzeko familietan (% 23,7) eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien artean ere (% 19,9) altua da. Jatorri atzerritarra duten pertsonen presentzia oraindik % 10etik gorakoa da guraso izandako ezkontideen etxeetan (% 12,9), nukleorik gabeko familien etxeetan (% 11,7) eta mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan (% 10,2).

Jarduerarekiko harremana

Jarduerarekiko harremana dela eta, EAEko familietan bi ezaugarri dira nagusi. Zahartze-prozesuaren garrantziak adierazten du, alde batetik, jardueraren pisua eta okupazioa nahiko mugatua dela. Etxeko erreferentziazko pertsonen artean, gutxi gorabehera % 51 lanean daude, eta % 9,2 langabezian. Gutxienez pertsona bat lanean duten familien proportzioa handiagoa da, baina % 62,7ra iristen da (% 55,2k lanbide ez prekarioen bat dute).

Krisiak eta lan-merkatuaren dinamikak ekarri dute, bestalde, prekaritate-egoerek eragin nabarmena izatea, bai lan motekin lotutako harremanei dagokienez, bai langabeziarekin loturikoei dagokienez. Hala, aztertutako familia-unitate nagusien % 16,7n lan prekarioa duten pertsonak daude, eta aztertutako unitateen % 19,5ean langabezia jasotzen duen pertsonaren bat.

Familien % 33,6an gutxienez pertsona bat dago langabezia jasotzen edo lan prekarioarekin. Lanean dauden pertsona aktibo guztiek lan prekarioa duten edo langabezia jasotzeko egoeran dauden unitateen proportzioa % 16,8koa da.

3. taula

Jarduerarekiko harremanaren oinarrizko adierazleak familia-etxe edo familia motaren arabera EAE 2015. urtea

	2015											
	UN-n pertsona aktiboak dituztenak	Lanean ari diren pertsonak EPn	Langabezia jasotzen duten pertsonak EPn	Norbait lanarekin UN-n	Norbait lan prekarioarekin UN-n	Pertsona aktibo guztiak lan prekarioa izatea UN-n	Pertsona aktiboren bat langabezian UN-n	Pertsona aktibo guztiak langabezian UN-n	Pertsona aktibo guztiak PLDn UN-n	Lan prekarioa ez duen norbait UN-n	Lan prekarioa duen norbait UN-n (langabezian edo okupazio prekarioarekin)	Pertsona aktibo guztiak lan prekarioak UN-n
Motak	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan
GUZTIRA	72,0	51,0	9,2	62,7	16,7	5,9	19,5	9,3	5,3	55,2	33,6	16,8
KIDE BAKARREKOAK	47,6	35,2	12,4	35,2	6,7	6,7	12,4	12,4	7,8	28,5	19,1	19,1
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	54,6	35,8	18,8	35,8	14,9	14,9	18,8	18,8	13,8	20,9	33,7	33,7
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	67,8	35,3	7,5	52,2	16,5	9,7	27,3	15,6	12,7	35,7	37,0	32,1
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	47,5	33,7	6,4	43,7	10,7	3,1	10,8	3,8	2,7	39,4	20,3	8,1
Guraso ez diren ezkontideak	100,0	80,5	16,4	92,8	35,6	8,5	25,6	7,2	5,1	82,3	59,2	17,7
Guraso izandako ezkontideak	32,0	19,9	3,4	29,2	3,3	1,5	6,4	2,8	2,1	26,8	8,8	5,2
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	98,8	70,0	9,1	92,5	26,2	5,0	24,7	6,4	2,5	85,1	46,2	13,8
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	98,8	79,0	10,5	93,9	23,8	4,2	24,8	5,0	1,5	87,0	44,1	11,8
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	98,9	34,8	3,5	86,9	35,3	8,2	23,9	11,9	6,4	77,3	54,5	21,5
GURASO BAKARREKOA	91,0	45,3	13,1	70,8	19,5	11,9	30,6	20,2	11,9	57,0	48,2	34,0
Mendeko seme-alabak dituztenak	92,9	62,1	22,0	65,5	15,4	14,1	36,7	27,3	15,4	51,2	51,9	41,7
Mendeko seme-alabarik ez dutenak	88,9	27,2	3,5	76,5	23,8	9,5	24,0	12,4	8,1	63,3	44,2	25,7
NUKLEO ANITZEKOA	97,3	35,8	10,3	87,6	30,9	1,2	55,8	9,6	2,0	76,5	66,1	20,7

Oharra:

Familia-etxe edo familiako erreferentziako pertsonen (EP) barruan, familia-etxe erreferentziako pertsona gisa zehaztutakoa eta haren ezkontidea/bikotekidea sartzen dira.

Etxeko unitate nagusiko (UN) pertsona aktiboak jotzen dira halakotzat

Iturria: FFEI. EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Jarduerarekiko harremanaren arabera, ordea, oso bestelakoa da etxeen arabera. Horren inguruan, hainbat egoera aipa daitezke.

Landunak izateko joera gehien duten familiak, familia osoan prekaritate gutxiago izanik: guraso ez diren ezkontideak eta mendeko seme-alabak dituzten guraso ezkontideak

Landunak izateko joera handiagoa duten familia motak hauek dira: guraso ez diren ezkontideen familiak eta mendeko seme-alabak dituzten guraso ezkontideenak. Kasu honetan, familiako erreferentziazko pertsonen % 79-80 landunak dira (% 80,5 eta % 79 hurrenez hurren). Familia mota horien % 93-94 ingurutan (% 92,8 eta % 93,9), familia-unitateko kide aktiboetatik gutxienez bat landuna da.

Mota horietako familietan, prekaritatearen egoera guztiak EAEren batez bestekoaren antzekoak edo baxuagoak dira. Azken hori bereziki nabarmena da mendeko seme-alabak dituzten gurasoen familien kasuan. Langabezia egoeran dauden edo pertsona aktibo guztiek lan prekarioa duten familia-unitateen % 11,8; hau da, EAEren batez besteko portzentajea baino 5 puntu baxuago. Proporzioa zertxobait altuagoa da guraso ez diren ezkontideen familien kasuan: % 17,7; hots, batez bestekoa baino bederatzita hamarren gehiago. Kopuru horietan, nabarmendu egin behar dira gutxienez lanean dagoen pertsona bat egoera prekarioan ez dagoen familiak. Mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeen % 87 eta guraso ez diren ezkontideen familien % 82,3 (EAEko % 55,2ko batez bestekoa baino 25 puntu gehiago).

Horrek ez du esan nahi familietan lan prekariatatik ez dagoenik, baina ez die kide aktibo guztiei eragiten. Hala, familia-unitatean langabezian dauden edo lan prekarioa duten pertsonak dituzten familien proportzioa oso altua da. Mendeko seme-alabak dituzten gurasoen familietan % 44,1ekoa da, eta % 59,2koa guraso ez diren ezkontideen familietan.

Tarteko posizioak: mendekoak ez diren seme-alabak dituzten familiak eta nukleo anitzeko familiak

Mendekoak ez diren seme-alabak dituzten familietan, lanean dagoen populazioaren presentzia ere garrantzitsua da. Hala, mota horietako gurasoen familien % 86,9tan gutxienez pertsona bat lanean dago. Proporzio hori % 76,5ekoa da mota horietako mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan.

Mendekoak ez diren seme-alabak dituzten familia mota horietan, ordea, egoera prekario zail horien kasuek batez besteko mailak gaintzen ditu. Hala, familia-unitateko kide aktibo guztiak langabezian edo lan prekarioaren egoeran dauden kasuak gurasoen familiei dagokienez % 21,5 erregistratu da. Proporzio hori % 25,7ra iristen da aztertutako guraso bakarreko familietan. Nolanahi ere, zalantzarik gabe nagusitzen da gutxienez lan prekario gabe lanean ari den pertsona bat duten familiekin loturiko zatia (% 77,3 eta % 63,3 hurrenez hurren).

Nukleo anitzeko familietan antzeko egoera egiaztatu da: familia horien % 87,6an lana duen kide bat eta % 76,5ean gutxienez lanean (prekarioa ez dena) dagoen kide dutenak (kide aktibo guztiak langabezian edo lan-egoera prekarioarekin dituzten kasuak, berriz, % 20,7 dira).

Nukleo anitzeko familietan, ordea, arazo pertsonalen presentzia handiagoa da, gutxienez langabeziari dagokionez. Hala, familia horien % 55,8an gutxienez langabezian dauden pertsonaren bat dago (% 24 inguru) mendeko seme-alabak dituzten hainbat familia nuklearretan.

Prekarietate handiena oinarrian familia-nukleorik ez duten familietan eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan

Datuek erakusten dute lanbide prekarioen egoera nagusiak kide bakarreko familietan, ahaiderik gabeko kide anitzeko familietan eta nukleorik gabekoetan gertatzen direla. Prekarietate handia duten familia mota bakarrak (familia-nukleoan oinarrituta dauden artean) mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak dira.

Talde horien ezaugarri komuna hau da: kide aktiboak dituzten familien barruan, horietako % 40k baino gehiagok kide aktibo guztiak langabezian edo lan prekario batekin dituzte. Gehienezko proportzioa % 61,8koa da, eta ahaiderik gabeko kide anitzeko familietan dago (% 33,7 daude egoera horretan, kide aktiboak dituzten etxeen % 54,6ren gainean. Adierazleak % 47,4 jasotzen du nukleorik gabeko ahaideetan (% 32,1, % 67,8ren aurrean), % 44,9 mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan (% 41,7, % 92,9ren aurrean) eta % 40,1 kide bakarreko familietan (% 19,1, % 47,6ren aurrean).

Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak

Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak gizarteko talde prekarioenak dira. Familia-unitateen % 65ek kideren bat lanean izan arren, eta % 51,2an gutxienez kide bat egoera ez prekarioan egon arren, familia horien % 51,9an kide aktiboak langabezian daude edo lan prekario bat dute. Adierazi dugun moduan, proportzioa % 41,7koa da familiako biztanleria aktibo osoa egoera horretan dauden kasuan hartzen badira kontuan. Portzentajerik altuena da familia eta etxe motaren arabera, ia EAeko batez bestekoa baino handiagoa.

Langabeziaren eragina oso handia da familia horietan: horietatik % 36,7 langabezia jasotzen duten egoeran dauden. Kasuen % 27,3an, gainera, kide aktibo guztiak langabezian daude. Epe luzeko langabezia kontuan hartuz gero, berriz, proportzioa % 15,4koa da. Azken bi adierazle horiek EAeko batez bestekoaren hirukoitza adierazten dute.

Ahaiderik gabeko kide anitzeko familiak edo nukleorik gabeko ahaideak

Bigarrenik, ahaiderik gabeko kide anitzeko familiek eta nukleorik gabeko ahaideen familiek prekarietate egoeren ondorioz kalte handia jasaten duten taldea dugu. Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien kasuan bezala, kasu honetan, prekarietatearen eta langabeziaren pisua oso altua da. Kide aktibo guztiak langabezian edo lan prekario batekin dituzten familien proportzioa % 33,7koa da ahaiderik gabeko kide anitzeko familietan eta % 32,1ekoa nukleorik gabeko ahaideen familien kasuan. Iraupen luzeko langabezia egoeren eragina, kide aktibo guztiei eragiten den arazoa den heinean, % 13,8koa eta % 12,7koa da, hurrenez hurren.

Arazoa da benetan askoz ere deigarriagoa dela talde horietan kontuan hartzen bada kide aktiboak dituzten familiek pisu gutxiago dutela talde horietan. Kide aktiboak dituzten familietan, kide aktibo guztiak langabezian edo lan prekarioetan dituztenen pisua lan prekarioarekin kideren bat duten taldearen antzekoa edo altuagoa da (% 32,1 % 35,7ren aurrean nukleorik gabeko familietan; % 33,7 % 20,9ren aurrean ahaiderik gabeko kide anitzeko familietan).

Kide bakarreko familia-etxeak

Kide bakarreko familia-etxeetan, kideak langabezian edo lan prekarioarekin dauden familia-etxeen pisua garrantzitsua da oraindik, % 19,1ekoa. Hala ere, iraupen luzeko langabeziaren eragina txikiagoa da (% 7,8koa) eta lan ez prekarioak dituzten kideen aldeko ezberdintasun positiboa handiagoa (% 28,5ekoa kasu honetan). Biztanleria ez aktiboaren pisua, gainera, handiagoa da talde honetan (% 52,4koa, % 45,4koa ahaiderik gabeko kide anitzekoetan eta % 32,2koa nukleorik gabeko familietan).

Okupazio-prekarietatearen eragin txikiena: guraso izandako ezkontideen familia-etxeak

Okupazio-prekarietate gutxien guraso izandako ezkontideen familia-etxeetan dago. Familia-etxe horien erreferentziazko pertsonen % 19,9 inguru lanean dauden arren, biztanleria ez aktiboaren pisua dela eta (adierazitako familia-etxeen % 68n ez dago biztanleria aktiborik), prekarietatearen egoera konplexu horiek oso presentzia txikia dute. Familia-etxe horien % 5,2 inguruan (EAEko gutxieneko kopurua), kide aktibo guztiak langabezian edo lan-egoera prekarioan dituzte. Proportzioa % 8,8ra igotzen da familia-etxeen egoera horietakoren batean kide bat dutenak kontuan hartzen badira.

Prekarietate ekonomikoa

EAEko familia-etxeetako erreferentziazko pertsonen % 13,1ek ez du diru-sarrerarik. Hala ere, kide guztiak diru-sarrerarik gabe dituzten familia-etxeek, guztira, % 0,9 osatzen dute. Familia-etxeen % 5,9k adierazi du DSBE/EPO sistemara jo dutela. Familia-etxe motaren arabera ezberdintasunak, ordea, deigarriak dira prekarietate ekonomikoaren adierazle horiei dagokienez.

4. taula

Diru-sarrerak eskuratzeari buruzko oinarrizko adierazleak, familia-etxe edo familia motaren arabera EAE 2015. urtea

	2015		
	Diru-sarrerarik gabeko pertsonak EPn	Kide batek ere ez du diru-sarrerarik	DSBE/EPO jasotzen dutenak
Motak	%-tan	%-tan	%-tan
GUZTIRA	13,1	,9	5,9
KIDE BAKARREKOAK	1,9	1,9	9,2
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	3,2	3,2	18,1
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	3,9	3,9	13,2
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	21,3	,3	1,7
Guraso ez diren ezkontideak	12,7	1,5	1,8
Guraso izandako ezkontideak	23,9	,0	1,7
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	13,6	,1	2,6
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	11,3	,0	3,1
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	22,5	,1	,6
GURASO BAKARREKOA	2,3	1,8	15,5
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	3,5	3,5	24,5
Mendeko seme-alabarik ez duen guraso bakarra	1,0	,0	5,9
NUKLEO ANITZEKOA	20,9	,0	,0

Oharra:

Familia-etxe edo familiako erreferentziazko pertsonen (EP) barruan, familia-etxe erreferentziazko pertsona gisa zehaztutakoa eta haren ezkontidea/bikotekidea sartzen dira.

Diru-sarrerarik gabeko kideen adierazleak 25 urtetik gorakoei (edo ikasleak ez diren 18 urtekoei) aplikatzen zaizkie

Iturria: FFEI. EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

DSBE/EPOren mendetasun handiagoa dago kide bakarreko familia-etxeetan, familia-nukleoan oinarrituta ez dauden kide anitzekoetan eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan

Gutxieneko baliabide ekonomikoak eskuratzeko DSBE/EPO sistemarekiko mendetasunak banaketa argia erakusten du EAEko etxeetan. % 2tik beherakoa da seme-alabarik gabeko etxe nuklearretan, mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan eta kide anitzeko familietan. % 3,1ekoa da mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan, eta EAEko batez besteko mailara iristen da (% 5,9) mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien kasuan. Adierazitako etxe mota horietan, kide bakar batek ere diru-sarrerarik jasotzen ez dituzten etxeen proportzioa ezdeusa da, guraso ez diren ezkontideen familietan izan ezik (% 1,5).

Muturreko aldean, DSBE/EPO sistemarako sarbidea zalantzarik gabe kide bakarreko etxeen eta nukleorik gabeko familien batez bestekoa baino handiagoa da. Etxe horietan, % 9,2ra eta % 13,2ra iristen dira, hurrenez hurren. Proportzioa are handiagoa da (% 18,1) ahaiderik gabeko kide anitzeko familietan. Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien kasuan, berriz, % 24,5ekoa da.

Adierazitako etxe eta familien taldeetan, diru-sarrerarik gabeko etxeen proportzioa, oro har, % 3,2 eta % 3,9 ingurukoa da. Salbuespen bakarra kide bakarreko etxeena da; izan ere, edozein kasutan arazo ekonomikoaren eragin gutxiago duten familia moten kasuen gainetik eta EAeko batez bestekoaren gainetik geratzen da (% 1,9 gehiago).

Oinarrian senar-emazteak edo bikotea duten etxeetako erreferentziatzko pertsonen diru-sarrerarik ez duten kasuen proportzioa handia da

DSBE/EPO sistema egoteak berekin paradoxa bat dakar; izan ere, inolako diru-sarrerarik ez duten erreferentziatzko pertsonen proportzioa prestazio hori gehien jasotzen duten etxeen batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa da. Kide bakarreko etxeetan, ahaiderik gabeko kide anitzekoetan, nukleorik gabeko familietan eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan, diru-sarrerarik ez duten erreferentziatzko pertsonen proportzioa % 1,9-3,9 ingurukoa da. DSBE/EPO sistemara sarbide gutxiago duten taldeetan, mendekoak ez dituen seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan bakarrik ikus daiteke diru-sarrera pertsonalik ez duten erreferentziatzko pertsonen proportzio txikiagoa (% 1).

Etxebizitzarako laguntza osagarrien beharra (beste batzuekin alderatuta) baxua denez, diru-sarrerarik gabeko erreferentziatzko pertsonen proportzioa esanguratsua da bikote batean oinarritutako etxeetan. Kasu honetan, erreferentziatzko pertsonen % 11,3k eta % 12,7k, hurrenez hurren, ez dute diru-sarrera propiorik mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan eta guraso ez diren ezkontideen familietan. Mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan, proportzioa % 22,5ekoa da, eta % 23,9koa, berriz, gurasoak diren ezkontideen familietan. Gertuko mailetan, adierazlea % 20,9 ingurukoa da kide anitzeko etxeetan.

Etxebizitza eskuratzearekin loturiko alderdiak

Jabetza nagusitzen da nabarmen EAEn etxebizitza eskuratzeko prozesuetan. Egoera horretan dauden etxeek % 84,3 osatzen dute, % 13 alokairuan daudenek, eta % 2,7 erabilera-lagapenek.

Jabekidetzak nagusitzen da ezkontideen eta seme-alabak dituzten gurasoen familia gehienetan

Bi pertsonarekin edo gehiagorekin osatutako jabekidetzak etxebizitzarako sarbidea izateko modu nagusia adierazten du oinarrian senar-emazteak edo bikotea duten nukleoen familia gehienetan. Salbuespen bakarra dira guraso ez diren ezkontideen familiak. Etxebizitzarako sarbidea izateko modu

horrek ezkontideen edo seme-alabak dituzten gurasoen familien % 68,1 eta % 78,1 inguru adierazten du. Kide bakar baten jabetza eskusiboa kasu horietan % 15,1 eta % 18,2 artekoa da. Alokairurako sarbidearen kopuruak ez baxuak dira (% 3,6 eta % 4 artean guraso izandako ezkontideen etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen familietan, eta % 9,9 mendeko seme-alabak dituzten gurasoen familietan).

Egoera antzekoa da nukleo anitzeko etxeetan, nahiz eta kasu horretan jabekidetzaren pisua etxeen % 57,3koa besterik ez izan. Etxeko kide baten jabetza eskusiboa % 18,5koa da. Kasu honetan, alokairua kasuen % 23,7ra igotzen da.

Jabetza kide bakar batek izatea kide bakarreko etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan

Kide bakarreko familietan eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan, jabetzaren pisua –kasu honetan, pertsona bakar bati mugatuta– ere garrantzitsua da (% 75,5 eta % 82,8 hurrenez hurren). Alokairua kide bakarreko etxeen % 14,4ra (horietatik % 6,3 soziala izanik) eta aztertutako guraso bakarreko familien % 9,3ra iristen da.

Alokairuaren garrantzia mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan, eta, nabarmenago, ahaiderik gabeko kide anitzeko etxeetan

Aurreko taldeetan ikusitakoarekin alderatuta, alokairuaren pisua nabarmenagoa da ahaiderik gabeko kide anitzeko familietan, hori baita nagusia (% 52,2 kasu horretan, eta % 45,2 etxeko kide batek jabetza duen kasuetan).

Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan, alokairuaren pisua % 34,5koa da (alokairu soziala % 10,9koa izanik); hau da, proportzio altuena familia eta etxe motaren arabera. Kasu honetan, ordea, jabetzak jarraitzen du nagusi izaten (% 60,8). Etxeko kide bakar baten jabetzak familia horien % 44,9 adierazten du; elkarbizitzen ez dauden pertsonekin jabekidetzak mistoa osatzen dutenek % 11, eta % 4,9 etxeko beste pertsona batzuekin partekatuta.

Ezaugarri horiek nukleorik gabeko familia-etxeen antzekoak dira, nahiz eta kasu honetan jabetzak pisu handiagoa izan (% 74,9, eta alokairuak % 20,1). Etxeko kide baten jabetza eskusiboa % 40,2koa da, beste bizilagun batzuekin jabetza partekatua egiten dutenena % 25,6koa, eta % 9,1ekoa elkarbizitzen ari ez direnekin jabekidetzak mistoa dutenena.

Jabekidetzak garrantzi gutxi dute guraso ez diren ezkontideen etxeetan

Errealitate konplexuena ikusten da guraso ez diren ezkontideen etxeetan. Kasu honetan, alokairuaren pisua (beste batzuekin alderatuz gero) altua da: % 28,7 daude egoera horretan, eta % 1,4 alokairu sozialean. Lagapena % 4,1era iristen da; hau da, batez bestekoa baino zertxobait gehiago.

Jabetza da nagusi: etxeen % 67,1 adierazten du. Hala ere, etxean bi kideren edo gehiagoren jabekidetzak oso baxuak dira kontuan hartuta ohikoa dela oinarrian senar-emazteak edo bikotea dituzten nukleotan: % 30,9 inguru; hau da, etxeko kide baten jabetza eksklusiboari dagokiona baino % 34,8 gutxiago. Bikoteko kide bakar baten jabetzak duen pisu hori da mota horietako etxeen ezaugarri bereizgarria.

5. taula
Familia-etxeak/familiak Etxebizitza-erregimenaren banaketa, familia-etxe eta familia motaren arabera EAE 2015. urtea
(Beharra duten etxeen gaineko ehunekoak)

	Familia-etxeak									
	Etxeko kide baten jabetza eskusiboa	Bi kideren edo gehiagoren jabetzeta	Jabekidetz mistoa	Ahaide batek lagata	Administrazio batek lagata	Enpresa batek erabilera lagata	Alokairu soziala	Alokairu Librea	Etxeko kide batek baino gehiagok elkarrekin alokatuta	Landuna
Motak	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan	%-tan
GUZTIRA	38,7	42,5	3,1	2,5	,0	,2	3,3	9,7	,0	,0
KIDE BAKARREKOAK	75,5	,3	6,0	3,7	,1	,2	6,3	8,1	,0	,0
KIDE ANITZEKOAK,	45,2	,0	,0	,0	,0	2,6	,0	49,6	2,6	,0
AHAIDETASUNIK GABE										
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	40,2	25,6	9,1	4,4	,0	,5	,0	20,1	,0	,0
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK	20,8	67,0	1,0	1,8	,0	,0	1,1	8,2	,0	,0
GABE										
Guraso ez diren ezkontideak	34,8	30,9	1,4	4,1	,0	,0	1,4	27,3	,0	,0
Guraso izandako ezkontideak	16,6	77,7	,9	1,2	,0	,1	1,0	2,6	,0	,0
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	17,5	70,3	1,0	2,3	,0	,1	2,0	6,8	,0	,0
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	18,2	68,1	1,1	2,5	,0	,1	1,8	8,1	,0	,0
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	15,1	78,7	,7	1,5	,0	,0	2,4	1,6	,0	,0
GURASO BAKARREKOA	63,2	4,1	7,5	2,4	,0	,5	6,8	15,5	,0	,0
Mendeko seme-alabak dituztenak	44,9	4,9	11,0	4,7	,0	,0	10,9	23,5	,0	,0
Mendeko seme-alabarik ez dutenak	82,8	3,2	3,7	,0	,0	,9	2,4	6,9	,0	,0
NUKLEO ANITZEKOA	18,5	57,3	,5	,0	,0	,0	1,4	22,3	,0	,0

Iturria: FFEI. EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

2. Familien eta familia-etxeen arazoak Alderdi espezifikoak

Txostenaren atal honetan, gizarte-arazoen barruan dauden talde handi jakin batzuen eragina aztertzen da. Arazo horiek EAEko familia eta etxe mota ezberdinei eragiten diete⁶.

Etxebizitza-arazoak

FFEIk etxebizitza arazo hauek hartu ditu kontuan familia-etxeetan eta familietan:

- * Etxebizitzaren egoera kaskarra
- * Etxebizitzan leku nahikorik ez egotea
- * Etxebizitzaren ekipamendua nahikoa ez izatea
- * Etxebizitzan konponketak egiteko beharra
- * Etxebizitza aldatzeko beharra
- * Zailtasuna etxebizitzaren hipotekaren epeak ordaintzeko
- * Zailtasuna etxebizitzako obren ondorioz sortutako zorrak ordaintzeko
- * Zailtasuna etxebizitzaren alokairua ordaintzeko
- * Lehen etxebizitza erosteko ezintasuna
- * Etxegabetzeko arriskuan edo etxegabetze-prozesuan, edo hipoteka-exekuzioan egotea
- * Etxeko kideren bat itzultzea etxebizitza-arazoen ondorioz

EAEko biztanleen % 27,1 etxebizitzarekin loturiko arazoren bat duten etxeetan bizi dira. Biztanleriaren % 15,4 esparru horretan egoera larriak dituzten etxeekin lotuta dago. Proporzio hori % 5,8koa da etxebizitzako arazoak lehentasunezkoak diren kasuetan. Garrantziaren indizean, arazo horiek % 7,4an kokatzen dira, eta larritasun-indizea % 57koa da.

Kalte handien jasaten duten taldeak: ahaiderik gabeko kide anitzekoak, nukleorik gabeko ahaideen familiak, mendeko seme-alabak dituzten nuklearrak eta nukleo anitzekoak.

Etxebizitzarekin loturiko arazoen eragin gutxien jasaten duten taldeak guraso izandako ezkontideenak dira, % 11,3 ingurukoa baita arazo hori aipatzen duten etxeetan. Batez bestekoaren azpitik, proporzioa % 20,8koa da kide bakarreko etxeetan. Guraso ez diren ezkontideen etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten hainbat familia nuklearretan, % 24,1 eta % 26,4 artekoa da.

Etxebizitzarekin loturiko arazoek dagoeneko batez bestekotik beherako eragina dute biztanlearen artean nukleorik gabeko familietan (% 33,8) eta mendeko seme-alabak dituzten familietan (% 30,6). Eragin handiena, ordea, ahaiderik gabeko kide anitzeko familiek, mendeko seme-alabak dituzten

⁶ Helburua emaitza nagusiak aurkeztea besterik ez denez, txosten honetan ez dira jorratuko xehetasun osoz arazo horien barruan dagoen talde bakoitzean sartutako arazo zehatzak. Baina eranskinetan txostenean jasotako arazo nagusietan biltzen diren esparru zehatzak ikusteko behar den informazioa ematen da.

guraso bakarrekotako familiek eta nukleo anitzeko familiek dute. Hiru familia eta etxe mota horietan, pertsonen % 41,6 eta % 46 artean, etxebizitza-arazoak dituzten familia-etxeekin lotuta daude.

6. taula
Familia-etxeetan/familietan etxebizitza-arazoak dituzten pertsonak, familia-etxe eta familia motaren arabera
Arazoaren eragin-adierazleak EAE 2015. urtea
Biztanleria osoaren gaineko eragin-tasak eta arazoak dituzten familia-etxeetako biztanleriari buruzko indizeak
(%-etan, larritasun-indizea izan ezik, hori 0etik 10era adierazten baita).

Motak	Intzidentzia,	Intzidentzia	Lehentasunezko	Garrantziaren	Larritasun-
	guztira	larria	eragina		eskala: 0-10
	%	%	%		%
GUZTIRA	27,1	15,4	5,8	7,36	57,0
KIDE BAKARREKOAK	20,8	10,1	6,8	7,11	48,6
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	43,0	23,6	7,1	7,29	54,8
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	33,8	18,9	12,7	7,31	55,8
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	14,6	6,5	4,5	6,74	44,5
Guraso ez diren ezkontideak	25,8	12,1	7,3	6,89	46,7
Guraso izandako ezkontideak	11,3	4,9	3,7	6,63	43,0
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	29,8	16,1	5,9	7,23	54,1
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	30,6	16,6	5,9	7,28	54,4
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	26,4	14,0	6,1	6,95	52,8
GURASO BAKARREKOA	33,7	25,5	6,1	8,20	75,7
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	41,6	34,6	5,1	8,52	83,2
Mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarrak	24,1	14,5	7,2	7,54	60,2
NUKLEO ANITZEKOA	46,0	35,0	3,5	8,16	76,1

Iturria: 2015eko FFEI EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Azken hiru talde horietan ikusten den eragina ere etxebizitza-arazoetan larritasun-intzidentzia handia dutenen batez bestekotik gorakoa da, % 20koa. Biztanleriaren % 23,6 egoera horretan dago ahaidarik gabeko kide anitzeko etxeetan. Proporzio hori % 34,6ra iristen da mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarrekotako familien kasuan, eta % 35era, nukleo anitzeko etxeetan. Azken bi familia mota horietan ikusten dira garrantziaren indize altuenak (8.5 eta 8.2) eta larritasun-indize altuenak (% 83,2 eta % 76,1 hurrenez hurren).

Hala ere, etxebizitzarekin loturiko lehentasunezko arazoek, oro har, ez dute modu esanguratsuan gaintzen EAEko batez besteko adierazlea ia familia-etxe edo familia mota batean ere. % 3,5etik hurbil dago nukleo anitzeko familiek eta guraso izandako ezkontideen familiek osatzen duten biztanleriaren

artean. Mendeko seme-alabak dituzten familia motetan edo mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen familietan % 5,1 eta % 6,1 artekoa, eta batez bestekoa baino zertxobait gehiago (% 6,8 eta % 7,3 artean) kide bakarreko etxeetan, ahaiderik gabeko kide anitzekoetan, guraso ez diren ezkontideen familietan eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan. Salbuespen bakarra da nukleorik gabeko familietako biztanleria. Kasu horietan, etxebizitza-arazoen lehentasuna % 12,7koa da.

Diru-sarrerekin loturiko arazoak

FFEIk diru-sarrerekin loturiko arazo hauek aztertzen ditu EAEko familia-etxeetan eta familietan:

- * Diru-sarrera bat ere ez izatea
- * Oinarrizko premiak (janaria, jantziak eta oinetakoak) betetzeko diru-sarrera nahikorik ez izatea
- * Etxeko energia-gastuak (argia, gasa, berogailua) ordaintzeko diru-sarrera nahikorik ez izatea
- * Etxeko beste gastu batzuek ordaintzeko diru-sarrera nahikorik ez izatea (telefonoa, zaborrak, ura, komunitateko gastuak)
- * Seme-alabek egin nahi dituzten ikasketak ordaintzeko diru-sarrera nahikorik ez izatea
- * Ezohiko gastuak (etxetresna elektrikoak aldatzea, seme-alaba baten ezkontza, kotxea aldatzea, eta abar)
- * Oporrak ordaintzeko diru-sarrera nahikorik ez izatea.
- * Seme-alabak zaintzeko pertsona bat kontratatzeko diru-sarrera nahikorik ez izatea
- * Adinekoak zaintzeko pertsona bat kontratatzeko diru-sarrera nahikorik ez izatea
- * Adinekoen egoitza ordaintzeko (edo ordaintzen laguntzeko) diru-sarrera nahikorik ez izatea

EAEko % 30,7 diru-sarrerekin loturiko arazoren bat duten etxeetan bizi dira. Biztanleriaren % 19,9k mota horietako egoera larriak dituzten etxeekin lotura dute. Proporzio hori % 7,7koa da diru-sarreren zailtasun horiek etxerako lehentasunezkoak jotzen ditugunean. Mota horietako arazoen garrantzia indizea 7,7koa da. Larritasun-indizea % 64,7koa da.

Kalte gehien jasaten duten taldeak hauek dira: ahaiderik gabeko kide anitzekoak, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak eta nukleo anitzekoak. Hala ere, arazoaren zenbait alderdik garrantzi berdina erakusten dute kide bakarreko etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan.

Diru-sarrerekin loturiko arazoen kalteak neurri txikiagoan pairatzen dituzten taldeak berriz ere guraso izandako ezkontideek osatutako familiak dira: arazo hori duten etxeetako biztanleen % 18. Kasu honetan, ordea, adierazlea oso antzekoa da mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxeen kasuan (% 18,8). Diru-sarrerekin loturiko arazoen eragin dezente handiagoa dute, nahiz eta zalantzarik gabe batez bestekoaren azpitik egon guraso ez diren ezkontideen familietan (% 29,9) eta mendeko seme-alabak dituzten gurasoen familietan (% 30,3).

Tarteko posizioan, diru-sarrerekin loturiko arazoan eraginak 3-5 puntu inguru gaintitzen du batez bestekoaren maila kide bakarreko familietan (% 34,1), nukleorik gabeko familietan (% 35,8) eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan (% 34,7).

Kalte gehien jasaten duten taldeak ez badira ere, horietan dagoen diru-sarreren arazoa nabarmena da. Kide bakarreko etxeen kasuan eta nukleorik gabeko familien kasuan, errealitate hori arazo horren lehenetsunezko eraginarekin lotuta dago. Kopuruak EAEko batez bestekoaren gainetik daude (% 7,7). Hala, adierazlea % 13,8koa da kide bakarreko etxeetan eta % 17koa nukleorik gabeko familietan.

Mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien kasuan, diru-sarrerekin loturiko lehenetsunezko eragina % 5,3koa da mota horietako familien kasuan. Hala ere, eragin larria duten familia moten pisu erlatiboa altuenetakoa da: % 26. Gauza bera gertatzen da larritasun-indizearekin: % 76,5.

7. taula					
Diru-sarrerekin loturiko arazoak dituzten familia-etxeak/familiak, familia-etxe edo familia motaren arabera					
Arazoaren eragin-adierazleak EAE 2015. urtea					
Biztanleria osoaren gaineko eragin-tasak eta arazoak dituzten familia-etxeetako biztanleriari buruzko indizeak					
(%-etan, larritasun-indizea izan ezik, hori 0etik 10era adierazten baita).					
Motak	Intzidentzia, guztira %	Intzidentzia larria %	Lehenetsunezko intzidentzia %	Garrantziaren eskala: 0-10	Larritasun- indizea %
GUZTIRA	30,7	19,9	7,7	7,70	64,7
KIDE BAKARREKOAK	34,1	20,7	13,8	7,62	60,8
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	50,2	31,8	19,4	7,54	63,3
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	35,8	20,1	17,0	7,55	56,2
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	20,8	12,2	5,2	7,14	58,8
Guraso ez diren ezkontideak	29,9	16,5	3,2	7,10	55,3
Guraso izandako ezkontideak	18,1	10,9	5,8	7,16	60,4
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	28,2	17,5	5,7	7,62	62,0
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	30,3	19,0	6,5	7,63	62,6
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	18,8	10,9	1,9	7,50	57,9
GURASO BAKARREKOA	49,9	38,3	14,3	8,20	76,7
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	62,5	48,0	21,7	8,34	76,9
Mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarrak	34,7	26,6	5,3	7,90	76,5
NUKLEO ANITZEKOA	48,2	36,0	8,3	8,39	74,7

Iturria: 2015eko FFEI EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Diru-sarrerekin loturiko arazoen eragin handiena, edozein kasutan, nukleo anitzeko etxeetan, ahaiderik gabeko kide anitzeko familietan eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan dago. Talde horietan, arazo horien eragina orotara % 50eko mailatik hurbil edo hortik gora dago (% 48,2; % 50,2 eta % 62,5 hurrenez hurren).

Hiru talde horietan, diru-sarrerekin loturiko arazo larriek eragin handia dute. Eragin larriak ahaiderik gabeko etxeetako pertsonen % 31,8ri eragiten die, eta % 36k nukleo anitzetako etxeetako familiei. Gehienez, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien % 48ri eragiten die.

Nukleo anitzeko etxeetan eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan daude kopuru altuenak garrantziaren indizean (8,39 eta 8,34 hurrenez hurren) eta hiru altuenetatik bi larritasun-indizean (% 74,7 eta % 76,9).

Lehentasunezko intzidentziari dagokionez, diru-sarreren arazoak tarteko mailan daude nukleo anitzeko etxeen kasuan; % 8,3 talde horretan, eta % 21,7 mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan, kopuru altuena adierazle horretan. Ahaiderik gabeko etxeei dagokienez, etxe horien garrantziaren eta larritasunaren indizeak EAEko batez bestekotik hurbil mantentzen diren arren, lehentasunaren eraginean mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien mailara hurbiltzen dira (% 19,4).

Lanarekin zerikusia duten arazoak

FFEIk lanarekin loturiko arazo hauek aztertu ditu EAEko familia-etxeetan eta familietan:

- * Lan egiteko adina duen inor ez dabil lanean (16-64 urte)
- * Etxeko baten bat lanik gabe dago
- * Lan prekarioa: aldi baterako lana, kontraturik gabekoa, denbora partzialean, orduka
- * Ordu-tegi txarra duen lana: txandaka, ordu-tegi irregularrekin
- * Kalitate eskaseko lana, edo titulazioarekin bat ez datorrena
- * Gaizki ordaindutako lana
- * Lantokia familia-etxetik oso urrun dago
- * Familia eta lan-esparrua bateratzea eragozten duen lana

Lanarekin loturiko arazoak daude zabalduen euskal herritarren artean. Biztanleria horren % 44 eragile horrekin loturiko arazo motaren bat duten familia-etxeetan bizi dira. Biztanleriaren % 33, gainera, mota horretako egoera larriak dituzten familia-etxeekin lotuta daude. Proporzio hori are handiagoa (% 25ekoa) lanarekin loturiko zailtasunak familia-etxerako lehentasunezko zat jotzen diren kasuetan. Garrantziaren indizean, arazo horiek 8,24 puntura iristen dira. Larritasun-indizea % 75ekoa da. Datu horiek guztiek agerian uzten dute EAEko familia-etxeetarako lanaren arazoa nagusitzen dela.

8. taula

Lanarekin loturiko arazoak dituzten familia-etxeetako/familietako pertsonak, familia-etxe edo familia motaren arabera

Arazoaren eragin-adierazleak EAE 2015. urtea

Biztanleria osoaren gaineko eragin-tasak eta arazoak dituzten familia-etxeetako biztanleriari buruzko indizeak (%-etan, larritasun-indizea izan ezik, hori 0etik 10era adierazten baita).

Motak	Intzidentzia,	Intzidentzia	Lehentasunezko	Garrantziaren	Larritasun-
	guztira	larria	intzidentzia		eskala: 0-10
	%	%	%		%
GUZTIRA	44,0	33,0	25,0	8,24	75,0
KIDE BAKARREKOAK	21,4	17,1	14,4	8,51	80,0
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	44,4	34,3	27,3	8,74	77,4
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	37,5	33,9	16,0	8,96	90,3
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	22,5	14,5	15,4	7,80	64,5
Guraso ez diren ezkontideak	58,5	41,8	42,9	8,19	71,5
Guraso izandako ezkontideak	12,0	6,5	7,3	7,23	54,5
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	52,9	39,5	29,0	8,17	74,8
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	53,3	39,3	29,1	8,11	73,8
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	51,2	40,5	28,8	8,42	79,1
GURASO BAKARREKOA	54,8	44,5	31,0	8,64	81,1
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	63,4	51,0	32,3	8,64	80,5
Mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarrak	44,5	36,6	29,4	8,65	82,2
NUKLEO ANITZEKOA	63,0	45,6	31,9	8,43	72,4

Iturria: 2015eko FFEI EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Bi familia-etxe edo familia mota eskas daude zalantzarik gabe dimentsio horren batez besteko balioen azpitik. Alde batetik, lanarekin loturiko arazoak dituzten etxeetan bizi diren guraso izandako ezkontideen familiak dira (% 12 eskas); eta, bestetik, kide bakarreko familietakoak (% 21,4 egoera horretan). Lanarekin loturiko arazoaren intzidentzia-adierazleak azken talde horretan batez bestekoaren azpitik badaude ere, arazo horiek tartean daudenean, garrantzitsutzat edo larrizat jotzen dira eta, gainera, EAEko batez besteko kopuruak gainditzen dira (8,51 eta 8,24 artean garrantziaren indizean eta larritasun-indizean % 80 eta % 75, hurrenez hurren).

Antzeko zerbait aipa daiteke nukleorik gabeko familia-etxeei dagokienez, oso maila altuak baititu garrantziaren eta larritasunaren indizeetan (8,96 eta % 90,3). Kasu honetan, lanarekin loturiko arazoaren intzidentzia oraindik maila baxuetan dago (beste batzuekin alderatuta), bereziki lehentasunezko egoerak aintzat hartzean (% 16), batez besteko kopurueta hurbiltzen dira, batez ere intzidentzia

larriari dagokionez (% 33,9, hau da, taldearen bereizgarria den intzidentzia orokorraren % 37,5etik oso hurbil).

Lanarekin loturiko arazoan intzidentzia, dagoeneko, batez bestekoa baino zertxobait gorago dago ahaiderik gabeko kide anitzeko etxeen kasuan eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarrekoetan. Kasu horietan, intzidentzia orokorra kaltetutako etxeetako biztanleriaren % 44,5 ingurukoa da. Intzidentzia larria % 34,3koa da ahaiderik gabeko kide anitzeko familia-etxeetan, eta % 36,6koa mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan. Lehentasunezko intzidentziak are zehatzago gainditzen ditu batez besteko mailak: kopuruak % 27,3koak eta % 29,4koak dira, hurrenez hurren. Talde horietan, gainera, arazoak presentzia duenean, garrantzitsutzat eta larritzat jotzeko joera dago. Garrantziaren indizea 8,74koa da ahaiderik gabeko kide anitzeko etxeetan, eta 8,65koa mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarrekoetan. Larritasun-indizearen mailak, bestalde, % 77,4koak eta % 82,2koak dira, hurrenez hurren.

Talde kaltetuenen artean, hauek nabarmentzen dira: gurasoen familia-etxeak, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak eta nukleo anitzekoak.

Lanarekin loturiko arazoan eragina handiagoa da gurasoen familia-etxeetan, bai mendeko seme-alabak dituztenetan, bai mendekoak ez diren seme-alabak dituztenetan, baita mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan edota nukleo anitzeko familietan.

Horien barruan, arazoan intzidentziaren maila % 51-53koa da gurasoen familia-etxeetan, eta % 63-64koa mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan eta nukleo anitzeko familietan. Intzidentzia larria berriz ere zertxobait txikiagoa da gurasoen familia-etxeetan (% 39,3 mendeko seme-alabak daudenean eta % 40,5 mendekoak ez diren seme-alaben kasuan). Nukleo anitzeko familia-etxeetan, berriz, % 45,6ra iristen da, eta gehienez ere % 51ra mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan. Kopuruak antzekoagoak dira lehentasunezko intzidentziari dagokionez: % 29 ingurukoak gurasoen familia-etxeetan eta % 32 mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan eta nukleo anitzeko familia-etxeetan.

Talde horietan, garrantziaren indizea 8,11 eta 8,64 artekoa da. Larritasun-indizea % 72,4koa da nukleo anitzeko etxeetan eta % 73,8koa mendeko seme-alabak dituzten gurasoen familia-etxeetan. % 79,1 eta % 80,5 artean dago mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen familia-etxeetan eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan.

Guraso ez diren ezkontideen familia-etxeetan, lanarekin loturiko arazoak dakartzan lehentasunezko intzidentzia nabarmentzen da.

Guraso ez diren ezkontideen nukleoek ere familia-etxe kaltetuenak osatzen dituzte. Lanarekin loturiko arazoa duten familia-etxeetako pertsonen % 58,5 osatzen dute. Proporzio hori % 41,8koa da intzidentzia larriaren moduak aintzat hartzen badira. Ez dira maila altuenak kaltetuen taldeen barruan.

Era berean, garrantziaren eta larritasunaren indize altuenak ere ez dira agertzen talde horretan (% 8,19 eta % 71,5). Hala ere, mota horietako familia-etxeak ezaugarri bereizgarri batengatik nabarmentzen dira. Talde horretan, lanarekin loturiko arazoengatik lehentasunezko intzidentzia altuagoa da, % 42,9koa arazo horiek haien etxeetarako lehentasunezkoztat jotzen dituzten familia-etxeen biztanleen artean.

Seme-alabekin loturiko arazoak

FFEIk seme-alabekin loturiko arazo hauek aztertzen ditu EAEko familietan eta familia-etxeetan:

- * Seme-alabak izateko ezintasuna (arrazoi biologikoengatik)
- * Nahi adina seme-alaba ezin eduki, diru-arazoak direla-eta (adopzioa barne)
- * Seme-alabak izateko ezintasuna lanarekin loturiko arazoengatik edo lan prekaritatearekin loturiko arazoengatik.
- * Seme-alabak izateko ezintasuna familia eta lana uztartzeko zailtasunengatik.
- * Seme-alaba adingabeak zaintzea.
- * Seme-alaba adingabeentzat haurtzaindegirako plazarik ez izatea
- * Moldatu ezina edo eskolako porrota
- * Ikasketak behar baino lehenago uztea
- * Ziurgabetasuna seme-alaben etorkizunaren gainean
- * Bizitza independentea izateko seme-alaben zailtasunak

Seme-alabekin loturiko arazoak garrantzitsuak dira euskal herritarren artean. Herritar horien % 30,2 eragile horrekin loturiko arazo motaren bat duten familia-etxeekin lotuta dago. Aipatutako mota horretako egoera larrien intzidentzia % 21,9koa da biztanleria osoan. Proporzioa are esanguratsuagoa da (% 15,6) seme-alabekin loturiko arazo horiek lehentasunezkoztat jotzen badira. Garrantziaren indizean, aztertutako arazoen puntuazioa 8,21ekoa da. Larritasun-indizea, berriz, % 72,6koa.

Logikoa denez, mota horietako arazoen intzidentzia mugatua da familia-etxe ez nuklearretan (kide bakarrekoak, ahaidetik gabeko kide anitzekoak, nukleorik gabeko familiak), baita seme-alabarik gabeko nuklearretan ere. Oro har, arazo hori duten familia-etxeen barruan, talde horietako biztanleriaren % 4,2 eta % 7,8 artean sartzen dira, eta gehienez ere % 10,4 guraso izandako ezkontideen familia-etxeetan. Intzidentzia larriaren moduak % 5etik gorakoak dira ahaide ez diren kide anitzeko familietan, eta guraso izandako ezkontideen familietan.

Arazo honen intzidentzia seme-alabak dituzten familia-etxe mota ezberdinetan

Seme-alabekin loturiko arazoen eragin handiena, jakina, seme-alabak dituzten familia-etxeetan dago. Horien barruan, eragin gutxien mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxeei dagokie. Mota horietako familia-etxeetan, biztanleriaren % 21,1 arazo horiek dituzten familiekin lotuta

dago, % 16,1 intzidentzia larriari dagokionez, eta % 10,1 lehentasunezko intzidentziari dagokionez. Kopuru horiek beti dira EAEko batez besteko orokorra baino askoz ere baxuagoak.

9. taula
Seme-alabekin loturiko arazoak dituzten familia-etxeetako/familietako pertsonak, familia-etxe edo familia motaren arabera

Arazoaren eragin-adierazleak EAE 2015. urtea
Biztanleria osoaren gaineko eragin-tasak eta arazoak dituzten familia-etxeetako biztanleriari buruzko indizeak (%-etan, larritasun-eskala izan ezik, hori 0-10 eskalan jaso baita)

Motak	Intzidentzia, guztira	Intzidentzia larria	Lehentasunezko intzidentzia	Garrantziaren indizea (0-10 eskala)	Larritasun-indizea
	%	%	%		%
GUZTIRA	30,2	21,9	15,6	8,21	72,6
KIDE BAKARREKOAK	6,1	4,1	3,7	7,86	67,6
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	7,8	7,8	3,0	9,58	100,0
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	4,2	,0	,0	5,40	,0
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	9,2	6,7	6,4	8,10	72,7
Guraso ez diren ezkontideak	5,2	2,8	1,6	7,40	54,4
Guraso izandako ezkontideak	10,4	7,8	7,8	8,20	75,3
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	42,4	30,2	22,3	8,12	71,2
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	43,8	31,1	22,8	8,12	70,9
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	36,0	26,3	20,4	8,12	73,0
GURASO BAKARREKOA	32,1	26,6	12,7	8,78	82,9
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	41,2	35,3	14,9	8,92	85,7
Mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarrak	21,2	16,1	10,1	8,45	76,3
NUKLEO ANITZEKOA	41,3	30,7	17,6	8,63	74,3

Iturria: 2015eko FFEI EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Kontrakoa gertatzen da gurasoen familia-etxeetan, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarrekoetan eta nukleo anitzekoetan. Familia-etxe mota horietan, seme-alabekin loturiko arazoaren intzidentziak beti gainditzen ditu nabarmen EAEko batez besteko mailak. Arazoaren intzidentzia orokorra % 36koa da mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen familia-etxeetan, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan, berriz, % 41 baino zertxobait gehiagokoa, eta gehienez ere % 43,8koa mendeko seme-alabak dituzten gurasoen familia-etxeetan.

Intzidentzia larriaren kopuru maximoak mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan jaso dira. Kasu horietan, % 35,3ra iristen da; mendeko seme-alaba mota horien gurasoen familietan eta nukleo anitzeko familietan. Proporzioa zertxobait baxuagoa da (% 26,3) mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen familia-etxeetan.

Joerak ezberdinak dira lehentasunezko intzidentziari dagokionez. Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familia-etxeetan % 14,9koa da, eta % 17,6koa, berriz, nukleo anitzeko familia-etxeetan. Kasu honetan, maila maximoak gurasoen familia-etxe mota ezberdinei dagozkio. % 20,4ko presentzia mendekoak ez diren seme-alabak daudenean, eta % 22,8koa mendeko seme-alabak dituzten familia-etxeetan (azken hori familia-etxe mota ezberdinetan jasotako gehienezko maila da).

Gurasoen etxebizitzetan, garrantziaren indizea 8,12 puntukoa da, eta larritasun-indizea, berriz, batez besteko orokorraren parekoa edo baxuagoa (% 70,9koa mendeko seme-alabak dituzten familia-etxeetan eta % 73koa mendekoak ez diren seme-alabak dituzten familia-etxeetan). Indize horiek altuagoak dira nukleo anitzeko familia-etxeetan (8,63 eta % 74,3), eta, askoz ere modu argiagoan, mendeko seme-alabak dituzten gurasoen familia-etxeetan (8,92 eta % 85,7).

Adineko biztanleak zaintzearekin loturiko arazoak

FFEIk EAEko familietako eta familia-etxeetako adineko biztanleak zaintzearekin loturiko arazo hauek hartu ditu kontuan:

- * Lan-karga familia-etxean adinekoei lagundu behar izateagatik
- * Lan-karga familia-etxetik kanpo adineko ahaideak zaintzeagatik
- * Guraso edadetuak ezin etxean zaindu, lanagatik
- * Guraso edadetuak ezin etxetik kanpo zaindu, lanagatik
- * Guraso edadetuak ezin etxean zaindu, nahikoa leku ez izateagatik
- * Egoitzatan lekurik ez aurkitzea
- * Ez aurkitzea inor egokirik edadetuak zaintzeko

Adinekoak zaintzearekin loturiko arazoek eragin gutxiago dute euskal herritarrengan (beste batzuekin alderatuz gero). Biztanleriaren % 9,9 eragile horrekin loturiko arazo motaren bat duten familia-etxeekin lotuta dago. Dimentsio honetako arazo larriak biztanleriaren % 6,5era mugatzen dira, eta % 3 eskas adineko pertsonekin loturiko arazo horiek lehentasunezkoztat jotzen dituzten familia-etxeei dagokienez. Garrantziaren indizean, arazo horrek 7,57 puntu ditu, eta larritasun-indizea % 65,4koa da.

Mota horietako arazoek intzidentzia mugatua dute, beti izanik familia-etxe ez nuklearren batez bestekoa baino baxuagoa (kide bakarrekoak, familia ez diren kide anitzekoak edo nukleorik gabeko familietakoak), guraso ez diren ezkontideen familia-etxeetan, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan eta nukleo anitzeko familietan. Oro har, mota horietan, arazo hori duten familia-etxeetan, biztanleriaren % 2,7 eta % 7,6 artean sartzen dira talde horietan. Intzidentzia larriaren

moduek % 5 besterik ez dute gainditzen nukleo anitzeko familia-etxeetan (% 6,7). Lehentasunezko intzidentzia gisa, arazo horiek berariaz ordezkutzen dituzten familia-etxeetan eragiten du, gehienez ere biztanleriaren % 2,7 (nukleorik gabeko familia-etxeetan).

Adineko pertsonak zaintzarekin loturiko arazoaren eragina zertxobait handiagoa da guraso izandako ezkontideen etxeetan eta mendeko seme-alabak dituzten gurasoen familietan. Arazo hori duten familia-etxeekin zerikusia duen biztanleria kopuru osoaren % 12koa eta % 10,1ekoa da, hurrenez hurren. % 7 inguru arazo larriekin lotuta dago. Lehentasunezko intzidentzia % 3,5 ingurukoa da.

10. taula
Adineko pertsonak zaintzarekin loturiko arazoak dituzten familia-etxe/familietako pertsonak, familia-etxe edo familia motaren arabera

Arazoaren eragin-adierazleak EAE 2015. urtea
Biztanleria osoaren gaineko eragin-tasak eta arazoak dituzten familia-etxeetako biztanleriari buruzko indizeak (%-etan, larritasun-indizea izan ezik, hori 0etik 10era adierazten baita).

Motak	Intzidentzia, guztira	Intzidentzia larria	Lehentasunezko intzidentzia	Garrantziaren eskala: 0-10	Larritasun-indizea
	%	%	%		%
GUZTIRA	9,9	6,5	3,0	7,57	65,4
KIDE BAKARREKOAK	3,5	1,7	1,6	7,16	48,8
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	2,7	,4	,0	4,92	15,4
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	6,3	2,5	2,7	7,15	38,7
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	10,1	6,1	3,0	7,45	60,5
Guraso ez diren ezkontideak	3,7	3,2	2,3	7,83	85,8
Guraso izandako ezkontideak	12,0	7,0	3,3	7,42	58,3
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	11,2	7,6	3,7	7,65	68,1
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	10,1	6,9	3,5	7,67	68,3
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	15,9	10,7	4,8	7,60	67,4
GURASO BAKARREKOA	10,6	6,7	1,6	7,34	62,9
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	6,6	4,2	1,0	7,34	64,0
Mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarrak	15,6	9,7	2,4	7,34	62,3
NUKLEO ANITZEKOA	7,6	6,7	1,5	8,34	87,8

Iturria: 2015eko FFEI EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Adineko pertsonak zaintzearekin loturiko arazoek intzidentziak maila altuenak ditu mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen eta guraso bakarreko familietan

Adineko pertsonak zaintzearekin loturiko arazoek eragin handiena mendeko seme-alabak dituzten familia nuklearrekin lotuta dago, gurasoen nahiz guraso bakarrekoen familiak izanik ere. Mota horietako familietan, eragina duten familia-etxeetako biztanleria gurasoen etxeetako guztizkoaren % 15,9koa da, eta % 15,6koa, berriz, guraso bakarreko mota horietako familietan. Intzidentzia larriari dagokionez, tartean dagoen biztanleria % 10,7koa da gurasoen familia-etxeetan, eta % 9,7koa, guraso bakarrekoetan. Lehentasunezko intzidentzia, ordea, baxua da (beste batzuekin alderatuz gero): % 4,8koa mendeko seme-alabak dituzten gurasoen familia-etxeetan, eta % 2,4 eskas mendeko seme-alaba mota horiek dituzten guraso bakarreko familietan.

Aztertzen ari garen arazoak tartean daudenean, garrantziaren indizeak eta larritasun-indizeak ez daude oso urrun batez besteko kopuruetatik, baina horiek gairatzeko joera dago aztertutako gurasoen familia-etxeetan (garrantziaren indizea 7,60 puntukoa da, eta larritasunarena, berriz, % 67,4koa). Kontrakoa gertatzen da mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan (7,34 eta % 62,3).

Osasunarekin loturiko arazoak

FFEIk EAEko familia-etxeetan eta familietan osasunarekin loturiko arazo hauek hartu ditu kontuan:

- * Etxeko kide baten gaixotasun terminala
- * Beste ahaide baten gaixotasun terminala
- * Etxeko unitateko kide baten gaixotasun kroniko larria
- * Beste ahaide baten gaixotasun kroniko larria
- * Etxeko kide baten baliaezintasun erabatekoa edo iraunkorra
- * Etxeko kideren batek desgaitasuna izatea
- * Etxeko kideren baten alkoholismoa edo toxikomania
- * Etxeko kideren baten mendetasun psikologikoaren beste arazo larri batzuk (ludopatia, Internet, bideojokoak, eta abar).

Osasunarekin loturiko arazoek eragin nabarmena dute (beste batzuekin alderatuz gero) euskal herritarren artean. Biztanleriaren % 23,9 osasunarekin loturiko arazo motaren bat duten familiekin lotuta dago. Mota honetako egoera larrien erreferentzia garrantzitsua izaten ari da. Biztanleriaren % 17,9 hartzen du barne. Proporzio hori % 14,8koa da osasunarekin loturiko arazo horiek lehentasunezkoztat jotzen dituzten familia-etxeei dagokienez. Garrantziaren indizean, arazo horiek puntuazio altua dute (8,29 puntu), eta larritasun-indizea % 75,2koa da.

Osasunarekin loturiko arazoek garrantzi handiagoa izaten dute EAEko ia etxe guztietan. EAEren batez bestekoaren azpitik geratzen dira guraso ez diren ezkontideen etxeak eta mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeak. Intzidentzia orokorra % 18,1 eta % 15,7 artekoa da, hurrenez hurren, mota horietako etxeetako biztanleria aintzat hartuta. Intzidentzia larriari dagokionez, kopuruak % 13,8 eta

% 11,4 artean daude. Lehentasunezko intzidentzia % 7,3koa besterik ez da mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan, baina oraindik % 12,6koa da guraso ez diren ezkontideen etxeetan.

Osasunarekin loturiko arazoaren intzidentzia batez besteko mailetatik oso hurbil dago kide bakarreko etxeetan, mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxeetan. Kasu horietan, arazo horien intzidentzia orokorrak etxeen % 23,2 eta % 28,7 artean du eragina. Etxeetako intzidentzia larriaren arazoetan, hauek aipatu behar dira: % 17,1 kide bakarreko etxeetako biztanleen artean, % 19,8 mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxeetan eta % 21,8 mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan. Lehentasunezko arazo gisa, osasuna aipatzen du % 11,6k mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxeetan, % 15,9 mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan, eta % 17,8 kide bakarreko etxeetan.

11. taula					
Osasunarekin loturiko arazoak dituzten familia-etxe/familietako pertsonak, familia-etxe edo familia motaren arabera					
Arazoaren eragin-adierazleak EAE 2015. urtea					
Biztanleria osoaren gaineko eragin-tasak eta arazoak dituzten familia-etxeetako biztanleriari buruzko indizeak					
(%-etan, larritasun-indizea izan ezik, hori 0etik 10era adierazten baita).					
Motak	Intzidentzia, Lehentasunezko			Garrantziaren eskala: 0-10	Larritasun-indizea
	Intzidentzia guztira	Intzidentzia larria	intzidentzia		
	%	%	%		%
GUZTIRA	23,9	17,9	14,8	8,29	75,2
KIDE BAKARREKOAK	23,2	17,1	17,8	8,08	73,8
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	28,5	26,2	25,4	8,86	91,9
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	43,3	33,1	28,1	8,75	76,4
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	32,3	24,1	25,5	8,24	74,5
Guraso ez diren ezkontideak	18,1	13,8	12,6	8,49	76,5
Guraso izandako ezkontideak	36,5	27,1	29,3	8,20	74,3
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	18,1	13,3	8,9	8,23	73,9
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	15,7	11,4	7,3	8,20	73,0
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	28,7	21,8	15,9	8,31	76,1
GURASO BAKARREKOA	30,4	24,3	16,9	8,45	79,7
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	24,8	19,8	11,6	8,49	79,6
Mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarrak	37,2	29,7	23,3	8,42	79,8
NUKLEO ANITZEKOA	37,5	28,5	22,6	8,60	75,8

Iturria: 2015eko FFEI EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Osasunarekin loturiko arazoaren intzidentzia handiagoa da ahaide ez diren kide anitzeko familietan, nukleorik gabeko familia-etxeetan, guraso izandako ezkontideen etxeetan, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan eta nukleo anitzeko etxeetan.

Osasunarekin loturiko arazoaren eragin handiena nukleorik gabeko familien etxeekin, guraso izandako ezkontideen etxeekin, mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen familiekin eta nukleo anitzeko etxeekin lotuta dago. Kasu horietan, osasunarekin loturiko arazoaren intzidentzia orokorrak biztanleriaren % 36,5 eta % 37,5 hartzen duten etxeetan du eragina. Gehieneko kopurua, berriz, % 43,3koa da nukleorik gabeko familia-etxeetan. Intzidentzia larriaren moduek % 27,1 eta % 29,7 artean eragiten dute etxe horietako biztanlerian. Berriz ere gehieneko kopurua % 33,1ekoa da nukleorik gabeko familia-etxeetan.

Lehentasunezko arazo gisa, ordea, bi talde ezberdin jaso dira osasunarekin loturiko eraginari dagokionez. Intzidentzia, alde batetik, % 22,6koa eta % 23,3koa da nukleo anitzeko etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxeetan. Beste alde batetik, % 28,1era eta % 29,3ra igotzen da nukleorik gabeko familietan eta guraso izandako ezkontideen etxeetan.

Adierazitako testuinguruan, ahaide ez diren kide anitzeko familiek talde ezohiko samarra osatzen dute. Alde batetik, mota horietako etxeetan nabarmentzekoa da intzidentzia orokorra ez dela gehiegi urruntzen EAeko batez bestekotik (% 28,5), eta eragin gehien duen taldeko alde baxuenean daudela egoera larrien intzidentziari dagokionez (% 26,2). Hala ere, nukleorik gabeko etxeen atzean eta guraso izandako ezkontideen etxeen atzean, hau nabarmentzen da lehentasunezko intzidentziaren adierazle altuenen mailan egoteagatik (% 25,4): osasunarekin lotuta lehentasun gisa eragina duten etxeetako biztanleak. Talde hori, gainera, nabarmentzekoa da maila horretan garrantziaren indize altuenak eta larritasun-indize altuenak dituelako (% 8,86 eta % 91,9).

Bizikidetzarekin loturiko arazoak

FFEIk, azkenik, bizikidetzarekin loturiko arazo hauek hartu ditu kontuan EAeko familia-etxeetan eta familietan:

- * Arazoak bikotekidearekin (ezkontideen arteko desadostasun handiak)
- * Dibortzioa, banaketa, izugarritzko haustura
- * Berehalako dibortzioa edo banaketa
- * Etxeko eginkizunak ezberdin banatuta egotea etxeko kideen artean
- * Agintea ezberdin banatuta egotea (menderatzea, mendearen egotea, gehiegikeriak)
- * Harreman txarra seme-alabekin
- * Seme-alabei tratu txarrak ematea
- * Seme-alabek familiako beste kide bati tratu txarrak ematea
- * Tratu txarrak bikotearen artean

Bizikidetzarekin loturiko arazoek eragin gutxi dute EAeko biztanlerian. Biztanleria horren % 4,8 eskas dago lotuta bizikidetzarekin loturiko arazo motaren bat duten etxeekin. Mota horretako arazo larriak dituztenak aztertutako biztanleriaren % 2k besterik ez du. Proporzio hori % 1,1ekoa da bizikidetzarekin loturiko arazo horiek lehentasunezko zatitza dituzten etxeekin loturikoei dagokienez. Gainera, garrantziaren indizean, arazo horiek puntuazio txikia dute (beste batzuekin alderatuta), 6,50 puntu, eta larritasun-indizea, berriz, % 40,8koa da.

Bizikidetzarekin loturiko arazoaren intzidentzia soilik urruntzen da batez besteko kopuruetatik mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan. Hala ere, arazo larrien % 5eko maila ere gainditzen da nukleo anitzeko etxeetan.

Bizikidetzarekin loturiko arazoan intzidentzian, EAEko batez besteko kopuruetatik aldentzen den familia mota bakarria mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarrekotako familiei dagokiena da. Kasu honetan, biztanleriaren % 22,4 bizikidetzarekin loturiko arazoak dituzten etxeetan bizi da. Arazo larriek aztertutako taldeko biztanleriaren % 8,3ri eragiten diete. Gai horretan, lehentasunezko intzidentzia biztanleriaren % 4,5ekoa da.

Hauek dira intzidentzia batez bestekotik hurbil edo zertxobait gorago duten beste talde batzuk: kide bakarrekotako etxeak, nukleorik gabeko familiak, mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarrekotako etxeak eta nukleo anitzeko etxeak. Kasu horietan, bizikidetzarekin loturiko arazoan intzidentzia orokorra % 4,7 eta % 7,5 artekoa da. Mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarrekotako familien eta nukleo anitzeko familien artean soilik gaintitzen da % 3ko kopurua (% 3,2 eta % 5,2 hurrenez hurren). Lehentasunezko intzidentzia gisa, arazo hori beti egoten da % 3ren azpitik etxeetan eta familietan.

12. taula
Bizikidetzarekin loturiko arazoak dituzten familia-etxe/familietako pertsonak, familia-etxe edo familia motaren arabera
Arazoaren eragin-adierazleak. EAE 2015. urtea
Biztanleria osoaren gaineko eragin-tasak eta arazoak dituzten familia-etxeetako biztanleriari buruzko indizeak
(%-etan, larritasun-indizea izan ezik, hori 0etik 10era adierazten baita).

Motak	Intzidentzia,	Intzidentzia	Lehentasunezko	Garrantziaren	Larritasun-
	guztira	larria	intzidentzia		eskala: 0-10
	%	%	%		%
GUZTIRA	4,8	2,0	1,1	6,50	40,8
KIDE BAKARREKOAK	4,7	1,5	2,4	5,69	30,9
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	,0	,0	,0	GK	GK
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	7,5	,0	,0	3,43	,0
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	2,7	1,2	1,0	6,75	45,3
Guraso ez diren ezkontideak	2,8	2,0	,5	8,57	73,6
Guraso izandako ezkontideak	2,7	1,0	1,1	6,20	36,9
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	3,2	1,4	,6	6,70	42,1
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	3,8	1,6	,7	6,70	41,8
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	,8	,4	,0	6,76	48,2
GURASO BAKARREKOA	15,3	6,0	3,3	6,44	39,3
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarria	22,4	8,3	4,5	6,27	37,2
Mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarrak	6,8	3,2	1,9	7,13	47,6
NUKLEO ANITZEKOA	7,3	5,2	,0	8,03	71,0

Iturria: 2015eko FFEI EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

3. Familien eta familia-etxeen arazoak Arazo nagusiak

Aztertutako arazo mota horietan sartutako kontzeptuak, kasu batzuetan, dimentsio bat baino gehiago hartu ohi dute. Hori dela eta, etxeetan zer arazori aurre egin behar dieten aztertzeko, komeni da ikusitako arazoaren tipologia zehatzagoa ezartzea. FFEIk aurretiaz eginiko jardueren esperientziari jarraikiz, arazo nagusien (lehentasunezkoen) tipologia hau ezarri da kasu bakoitzean sartutako arazo motaren arabera.

Kontuan hartutako arazo nagusien tipologia eta mota bakoitzean sartutako arazo zehatzak

ARAZO MOTA NAGUSIA	BARNEAN DAUDEN ADIERAZLE ZEHATZAK
Etxebizitzaren aldeak	Egoera eskasa Leku txikiegia Ekipamendua nahikoa ez izatea Konponketak egiteko beharra Etxebizitza aldatzeko beharra
Gabezia ekonomikoak	Etxebizitzako hipotekaren epeak ordaintzeko zailtasuna Etxebizitzako obregatik sortutako zorrak ordaintzeko zailtasuna Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko zailtasuna Etxegabetzeko arriskuan edo prozesuan, edo hipoteka-exekuzioan Inolako diru-sarrerarik ez izatea Diru-sarrera nahikorik ez izatea oinarrizko premietarako Diru-sarrera nahikorik ez izatea gastu energetikoak ordaintzeko Diru-sarrera nahikorik ez izatea etxeko gastuak ordaintzeko Diru-sarrera nahikorik ez izatea seme-alaben ikasketak ordaintzeko Diru-sarrera nahikorik ez izatea ezohiko gastuak ordaintzeko Diru-sarrera nahikorik ez izatea seme-alabak zainduko dituen norbait kontratatzeko Diru-sarrera nahikorik ez izatea adineko pertsonak zainduko dituen norbait kontratatzeko Diru-sarrera nahikorik ez izatea adineko egoitza bat ordaintzeko (edo ordaintzen laguntzeko)
Bizimodu independentea finkatzea	Lehenengo etxebizitza erosteko ezintasuna Nahi adina seme-alaba ezin eduki, diru-arazoak tarteko Nahi adina seme-alaba ezin eduki, familia eta lana uztartzeko zailtasunak tarteko Seme-alabek bizimodu independentea izateko zailtasunak
Langabezia, lan prekarioa	Lan egiteko adina duen inor ez dabil lanean Etxeko baten bat lanik gabe dago Lan prekarioa: aldi baterako, kontraturik gabe, denbora partzialean, orduka
Lanaren kalitatea jaistea	Ordu-tegi txarra duen lana: txandaka, ordu-tegi irregularrekin Kalitate eskaseko lana, edo titulazioarekin bat ez datorrena Gaizki ordaindutako lana: Lantokia etxetik oso urrun dago Familia eta lana uztartzeko zailtasunak sortzen dituzten lanak

**Kontuan hartutako arazo nagusien tipologia eta mota bakoitzean sartutako arazo zehatzak
(Jarraipena)**

ARAZO MOTA NAGUSIA	BARNEAN DAUDEN ADIERAZLE ZEHATZAK
Pertsonak zaintzea	<p>Seme-alaba adingabeak zaintzea</p> <p>Hautzaindegi-plazarik ez izatea seme-alaba txikientzat</p> <p>Lan-karga etxean adineko ahaideak zaintzeagatik</p> <p>Lan-karga etxetik kanpo adineko ahaideak zaintzeagatik</p> <p>Guraso edadetuak ezin etxean zaindu, lanagatik</p> <p>Guraso edadetuak ezin etxetik kanpo zaindu, lanagatik</p> <p>Guraso edadetuak ezin etxean zaindu, nahikoa leku ez izateagatik</p> <p>Egoitzatan lekurik ez aurkitzea</p> <p>Ez aurkitzea inor egokirik adinekoak zaintzeko</p>
Gaixotasuna/ Desgaitasuna	<p>Etxeko kide baten gaixotasun terminala</p> <p>Beste ahaide baten gaixotasun terminala</p> <p>Etxeko kide baten gaixotasun kroniko larria</p> <p>Beste ahaide baten gaixotasun kroniko larria</p> <p>Etxeko kideren baten baliaezintasun erabatekoa edo iraunkorra</p> <p>Etxeko kideren baten desgaitasuna</p> <p>Etxeko kideren baten mendetasun psikologikoaren beste arazo larri batzuk (ludopatia, Internet, bideojokoak, eta abar).</p>
Familiaren egoera	<p>Seme-alabak izateko ezintasuna (arrazoi biologikoengatik)</p> <p>Moldatuezina edo eskolako porrota</p> <p>Ikasketak behar baino lehenago uztea.</p> <p>Bikoteen arazoak (ezkontideen arteko desadostasun larriak)</p> <p>Dibortzioa, banaketa, izugarritzko haustura</p> <p>Etxeko kideen artean etxeko lanak ezberdin banatuta egotea</p> <p>Agintearen banaketa ezberdina izatea (mendean hartzea, mendean egotea, gehiegikeriak)</p> <p>Harreman txarrak seme-alabekin</p> <p>Seme-alabek familiako beste kide bati tratu txarrak ematea</p>
Seme-alaben etorkizuna	Zalantzagarritasuna seme-alaben etorkizunaren inguruan
Bestelakoak	Oporrak ordaintzeko diru-sarrera nahikorik ez izatea ⁷
Bat ere ez	Ez da sartzen aurreko arazo bat ere ez

Tipologia ezberdinetan sailkatutako arazo nagusien banaketa (familia-etxe eta familia motaren arabera) 13. taulan jaso da.

⁷ Adierazle hau gabezia ekonomikoekin lotuta badago ere, bereizita aztertu da; izan ere, ez du zerikusirik mota horietako gabezia ekonomikoekin aztertzen diren oinarrizko premiak betetzeko zailtasunekin.

13. taula
Familia-etxe/familietako kideak Arazo mota nagusia EAEko familia-etxe edo familia motaren arabera 2015. urtea
(% horizontalak)

Motak	Etxebizitzaren aldeak	Gabezia ekonomikoak	Bizimodu independentea finkatzea	Langabezia, lan prekarioa	Lanaren kalitatea jaitea	Pertsonak zaintzea	Gaixotasuna/ Desgaitasuna	Familiaren egoera	Seme-alaben etorkizuna	Bestelakoak	Adierazitako bat ere ez ?????????? ??????????	Guztizko kopurua
	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
GUZTIRA	3,8	8,2	2,0	18,8	6,2	3,4	14,8	1,4	13,8	,8	26,9	100,0
KIDE BAKARREKOAK	4,6	13,9	1,0	9,9	4,5	1,6	17,8	2,4	3,4	1,3	39,5	100,0
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	,0	19,9	4,0	23,0	4,3	,0	25,4	,0	3,0	2,6	17,9	100,0
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	10,0	16,1	,0	14,9	1,0	2,7	28,1	,0	,0	3,6	23,6	100,0
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	3,4	5,0	1,1	11,0	4,4	3,0	25,5	1,3	5,3	1,0	39,0	100,0
Guraso ez diren ezkontideak	3,9	3,0	1,7	29,1	13,8	2,3	12,6	2,2	,0	1,9	29,5	100,0
Guraso izandako ezkontideak	3,2	5,5	,9	5,7	1,6	3,3	29,3	1,1	6,9	,7	41,7	100,0
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	3,7	6,4	2,7	21,1	7,9	4,3	8,9	,9	19,6	,5	23,8	100,0
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	4,0	7,6	1,5	20,4	8,7	4,2	7,3	1,2	20,5	,4	24,2	100,0
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	2,5	1,0	7,9	24,1	4,7	4,8	15,9	,0	15,8	1,2	22,1	100,0
GURASO BAKARREKOA	3,6	15,2	,8	26,3	4,7	1,7	16,9	3,3	12,5	,8	14,1	100,0
Mendeko seme-alabak dituztenak	2,6	22,6	,3	26,2	6,1	1,2	11,6	4,5	14,7	1,3	9,0	100,0
Mendekoak ez diren seme-alabak dituztenak	4,8	6,4	1,4	26,4	3,0	2,4	23,3	1,9	9,9	,2	20,3	100,0
NUKLEO ANITZEKOA	3,5	8,3	4,3	31,1	,8	1,5	22,6	,0	13,3	,0	14,5	100,0

Ez dira sartzen etxe barruan bigarren mailako familia-unitateko pertsonak

Iturria: 2015eko FFEI EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Biztanleriaren % 73,1 FFEIn aztertutako arazoren bat duten familia-etxeen edo familien barruan daude. Aztertutako arazo nagusiak langabeziarekin eta lan prekarioarekin (% 18,8) edo lanaren kalitate eskasarekin (% 6,2) lotuta daude. Oro har, arazo hori duten familia-etxeetako biztanleria guztizkoaren % 25 da. Deigarria da beste arazo garrantzitsu bat (biztanleriaren % 13,8 jasotzen duten familia-etxeetan lehentasunezko arazotzat jotzen denean) seme-alaben etorkizuna dela. Neurri batean, aurreko arazoarekin lotuta dago.

Bigarren arazo garrantzitsuan (EAEko zahartze-prozesuaren garrantziaren bidez azaldu daiteke), gaixotasuna edo desgaitasuna aipatzen da (errealitate hori pairatzen duten biztanleen % 14,8).

Gabezia ekonomikoek ere sarritan aipatutako alderdi bat adierazten dute, nahiz eta horien intzidentzia oso azpitik egon: lehentasunezko arazotzat jotzen dituzten familia-etxeekin eta familiekin loturiko biztanleen % 8,2. Horrekin lotuta egon daiteke % 2k bizimodu independentea izateko zailtasunak dituela aipatzen duela.

Gainerako alderdien intzidentzia askoz ere txikiagoa da etxeko oinarrizko arazo gisa: % 3,8 etxebizitzako hutsuneei dagokiena, % 3,4 adineko pertsonak zaintzearekin loturikoa, % 1,4 familiaren egoerarekin eta bizikidetzarekin loturikoa, eta gutxieneko kopurua (% 0,8) ongizatea lortzearekin loturiko gabezia ekonomikoek dagokiena (oporrak izatea).

Arazo moten araberako azterketatik informazio askoz ere zehatzagoa eta konplexuagoa ateratzen da. Hala ere, ezberdintasun handiak daude familien eta familia-etxeen taldeen artean. Jarraian adierazten dira alderdi nagusiak.

Langabeziarekin eta lanarekin loturiko arazoak guraso ez diren ezkontideen familia-etxeetan

Ezaugarri deigarria da langabeziarekin, lan prekarioarekin, kalitate txarreko lanekin loturiko arazoek guraso ez diren ezkontideen etxeekin zerikusi handia izatea. Familia-etxe horietako biztanleen % 42,9k du arazo hau; hau da, EAEko batez bestekoa baino ia 18 puntu gehiago. Taldeko pertsonen % 29,1ek langabeziarekin edo lan prekarioarekin loturiko arazoekin du zerikusia, eta % 13,8k kalitate eskaseko lan motekin.

Talde horretan, bestelako arazoek oso eragin txikia dute, gabezia ekonomikoekin loturiko arazoak barne. Nolanahi ere, familia horietako biztanleen % 12,6k adierazten dute gaixotasunarekin edo desgaitasunarekin loturiko arazoak dituztela.

Langabeziarekin eta lanarekin loturiko arazoak, baina gabezia ekonomikoen eragin handia ere bai ahaide ez diren kide anitzeko familietan eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan

Arazo nagusi gisa, eta guraso ez diren ezkontideen etxeekin alderatuta, langabeziarekin, lan prekarioarekin eta kalitate eskaseko lanarekin zerikusia duten arazoek presentzia txikiagoa dute ahaide ez diren kide anitzeko familietako eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietako biztanleriari dagokionez (% 27,3 eta % 32,3). Gainera, guraso ez diren ezkontideen etxeetan ez bezala (arazo hori etxe horietako biztanleen % 3k besterik ez baitu jotzen lehentasunezko arazo gisa), ahaide ez diren kide anitzeko familietan eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarrekoetan, erabakigarria da gabezia ekonomikoekin loturiko arazoa (egoera horretan dauden biztanleen % 19,9 eta % 22,6 hurrenez hurren).

Gabezia ekonomikoarekin, langabeziarekin, lan prekarioarekin edo lanaren kalitate txarrarekin loturiko arazoak maximora iristen dira talde hauetan: % 47,2 ahaide ez diren kide anitzeko familietan eta % 54,9 mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan (guraso ez diren ezkontideen familien gainetik, horietan % 45,9 baita).

Ahaide ez diren kide anitzeko familien kasuan nabarmendu behar da, gainera, biztanleen % 4 osatzen duela bizimodu independentea finkatzeko zailtasunak lehentasuntzat jotzen dituzten etxeetan.

Aztertutako bi taldeetan garrantzitsua da gaixotasunaren edo desgaitasunaren presentzia. Arazo nagusi gisa, gai hori kide anitzeko etxeetako biztanlearen % 25,4ean jasotzen da, baita aztertutako guraso bakarreko familietako biztanleen % 11,6an ere.

Era berean, garrantzitsua da seme-alaben etorkizunaren gaineko kezka, elementu nagusia baita mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familia askotan (mota horietako etxeetako biztanleen % 14,7).

Langabeziarekin eta lanarekin loturiko arazoak, gabezia ekonomikoan eragin handirik izan gabe baina bai gaixotasun/desgaitasun arazoetan, mendekoak ez diren seme-alabak dituzten etxe nuklearretan eta nukleo anitzekoetan

Mendekoak ez diren seme-alabak dituzten etxe nuklearretan, bai gurasoek bai guraso bakarrek osatutako familietan, edota nukleo anitzekoetan, batez besteko kopuruaren gainetik daude langabeziarekin, lan prekarioarekin edo kalitate txarreko lanarekin loturiko arazoak. Alderdi horiek arazo nagusiak dira mota horietako etxeetan. Kopuruak aldatu egiten dira: % 28,8 mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan eta % 31,9 nukleo anitzekoetan (% 29,4 mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan).

Guraso ez diren ezkontideen familiekin gertatzen ez zen bezala, talde horietan gabezia ekonomikoekin loturiko arazoak ez dira hain garrantzitsuak, batez ere mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan (% 1 eskas kaltetutako biztanleen artean, % 6,4 mota horietako seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan eta % 8,3 nukleo anitzeko familietan). Oro har, langabeziaren eta okupazioaren arazoekin alderatuta, arazo horien intzidentziak soilik gaintitzen du % 40 nukleo anitzeko

etxeetan (% 40,2 eta % 35,8 mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxeetan eta % 29,7 mota horietako seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan).

Nabarmentzeko arazoa da etxe horietan gabezia ekonomikoak baino askoz ere garrantzitsuagoa dela gaixotasunaren edo desgaitasunaren arazoak egotea. Arazo nagusiak horietan dira mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxeetako biztanleen % 23,3an, nukleo anitzeko familien % 22,6an eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen familien % 15,9an.

Familia horietan ere garrantzitsua da seme-alaben etorkizuna edota bizimodu independentea egitearekin loturiko arazoak nagusizat jotzen duten etxeetako biztanleen proportzioa. Gehienez ere % 23,8 mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan (% 17,6 nukleo anitzekoetan eta % 11,3 mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxeetan).

Langabeziarekin eta lanarekin loturiko arazoak, gabezia ekonomikoetan eta gaixotasun/desgaitasun arazoetan eragin handia izan gabe, mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan

Mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeetako alderdi asko aurreko taldean aipatutakoen berdina izaten dira. Aipatzekoa da langabeziarekin, lan prekarioarekin edo kalitate eskaseko lanarekin loturiko arazoak direla nagusi. Arazo horien intzidentzia % 29,1ekoa da talde horietan ikusitako tartean. Horietan bezala, gabezia ekonomiko nagusien eragina ere batez bestekotik gertu edo hortik beherako mailetan daude (% 7,6). Beste ezaugarri bat ere aipatzekoa da: taldearen zati baterako garrantzitsuen izatea seme-alaben etorkizuna (egoera horretan dauden biztanleen % 22, bizimodu independentea lortzeko zailtasunekin loturiko arazoa barne).

Ezaugarri ezberdin gisa aipatu behar da askoz ere eragin gutxiago dutela (arazo nagusi gisa batez bestekoa baino nabarmen gutxiago) gaixotasunarekin edo desgaitasunarekin loturiko gaiek (% 7,3).

Gaixotasuna edo desgaitasuna, baina baita arazo ekonomikoak eta etxebizitzarekin loturiko arazoak ere nukleorik gabeko familia-etxeetan

Nukleorik gabeko familia-etxeetan, gaixotasuna eta desgaitasuna dira arazo nagusiak. Etxe horietako biztanleen % 28,1ek lehentasunezko zatitan jotzen dute arazo hori. Langabeziarekin, lan prekarioarekin edo kalitate txarreko lanarekin loturiko arazoek garrantzi gutxiago dute (% 16) beste batzuekin alderatuta.

Hala ere, mota horietako etxeetan aipatzekoa da gabezia ekonomikoak eta etxebizitza-arazoak arazo nagusi gisa duten eragin handia. Bi dimentsio horiek barne hartzen dituzten familia motak batez bestekoaren oso gainetik daude. Oro har, EAEko batez besteko biztanleriaren % 12ren aurrean, familia-etxe horietako biztanleen % 26,1 dago kaltetuta (lehentasunezko arazo gisa) gabezia ekonomiko horientatik eta etxebizitzaren arazoengatik. Familia moten arabera mailarik altuena da, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiei dagokien % 25,2ren gainetik baitago.

Arazorik gabeko familia-etxeen proportzio altua kide bakarreko familietan eta guraso izandako ezkontideen familietan. Intzidentzia handien dute gaixotasunarekin edo desgaitasunarekin loturikoek (nahiz eta kide bakarreko familietan gabezia ekonomikoek eragin esanguratsua izan)

Kide bakarreko etxeetan eta guraso izandako ezkontideen familietan, nabarmentzekoa da familia-etxe askok ez dutela aipatu FFEIn aztertutako arazo bat ere ez: % 39,5 eta % 41,7, hurrenez hurren.

Zailtasunen bat aipatzen duten familia-etxeen artean, nagusiena gaixotasunarekin eta desgaitasunarekin lotuta dago. Eragile nagusi hori aipatzen dutenen artean, biztanle hauek daude: % 17,8 kide bakarreko etxeetan bizi direnak eta % 29,3 (EAEko kopuru maximoa) guraso izandako ezkontideen familietakoak.

Kide bakarreko familia-etxeetan, dena den, aipagarria da gabezia ekonomikoak eta etxebizitza-arazoak aipatzen dituzten familien proportzioa altua dela, beste batzuekin alderatuta (% 13,9 eta % 4,6). Guztira, % 18,5ek adierazten ditu arazo nagusi horiek. Proportzio hori ahaide ez diren kide anitzeko familien % 19,9tik hurbil dago, eta nukleorik gabeko familia-etxeen eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien % 25-26tik dezente beherago geratzen da.

4. EAEko familien eta familia-etxeen zaintza-kargak

FFEIren datuek adierazten dute zaintza-jarduerek eragin handia dutela lan-jarduera normalizatua izateko aukeran. Hala, 19-69 urteko biztanleen % 0,4 inguruk adierazi du ezin duela lan egin adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeko beharragatik. Azken 10 urteetan familiaren barruko lanak ekarritako gehiegizko kargaren ondorioz, edo seme-alaba jaiotzearen ondorioz lan bat utzi behar izan dutenen proportzioa zertxobait handiagoa bada ere, kopuru urria da, % 1,7 eskas. Eragin handiena 16 eta 69 urte bitarteko pertsonen ehunekoari dagokio, zehazki, azken 3 urteetan lana eta familia bateratzearekin lotutako arazoengatik lan-jarduera eten egin behar izan dutenei gutxienez familiaren barruko lanak ekarritako gehiegizko kargekin edo seme-alaba jaiotzearekin (amatasun/aitatasun baja amaitu ondoren) lotuta. Proportzioak, ordea, ez du % 1,9 gainditzen.

Sexuaren arabera, berriz, alde handiak ikusten dira. Eragina 3 edo 5,6 aldiz handiagoa da emakumeen artean. Gainera, arazoa askoz ere handiagoa da etxe nuklearretan, bai gurasoen etxeetan, bai guraso bakarrekoetan. Sexuaren eta familia motaren konbinaketak ekarritako eragina kontuan hartuta, gainera, zenbait egoera kezkarri ikusten dira.

Deigarrienak 16 urtetatik 69ra bitarteko emakumeen artean du eragina, eta mendeko seme-alabak dituzten gurasoen familia-etxeekin lotuta dago. Kasu honetan, emakume horien % 6,9k adierazi du lan-jarduera eten egin behar izan dutela azken 3 urteetan lana eta familia bateratzeko arazoengatik; eta % 4,4k adierazi du azken 10 urteetan lana utzi dutela familiaren barruan gehiegizko karga izateagatik edo seme-alaba jaiotzearen ondorioz. 16 urtetatik 69ra bitarteko emakumeen artean, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan, aztertutako arazoaren eragina baxuagoa da. Hauek dira portzentajeak, hurrenez hurren: % 1,7 eta % 3,5. Bi kasuetan, 16-69 urte bitarteko biztanle emakumeen artean, % 2k baino gutxiagok adierazi du lan egiteko ezintasuna adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeko beharragatik.

Seme-alabak dituzten taldeetatik kanpo, gaur egun, 16-69 urtera bitarteko emakumeen % 5ek, nukleorik gabeko familia-etxeetan, adierazi du azken 10 urteetan lana utzi behar izan dutela familia-kargen ondorioz. Ahaide ez diren kide anitzeko familia-etxeetan, 16-69 urte bitarteko gizonen % 7,3k azken hiru urteetan lan-jarduera eten egin behar izan dute zaintzeko beharraren arazoengatik.

Laneko eta familiako kargak pilatzearen eragina, berriz, askoz ere handiagoa da. Bi dimentsio horietan, jarduera-ordutegiak astean 60 ordukoak edo 70 ordukoak dira. Hala, ikusten da lana duten biztanleen % 8,9k astean 60 ordu baino gehiago ematen dituztela laneko eta etxeko jardueretan, eta % 3,5ek 70 ordu baino gehiago. Sexuaren araberako aldeak berriz ere erabakigarriak dira: emakumeen % 11,5ek 60 ordu baino gehiago ematen dituzte astean jarduera horietan, eta % 4,3k 70 ordu baino gehiago (gizonek, berriz, % 6,5 eta % 2,8).

14. taula

Zaintza-jarduerek lan munduaren parte-hartzean duen eraginaren adierazleak, sexuaren arabera eta familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE 2015. urtea
(Erreferentziako taldeko datuak %-etan)

	1. adierazlea			2. adierazlea			3. adierazlea			4. adierazlea			5. adierazlea		
	Guztizko kopurua	Gizona	Emakumea	Guztizko kopurua	Gizona	Emakumea	Guztizko kopurua	Gizona	Emakumea	Guztizko kopurua	Gizona	Emakumea	Guztizko kopurua	Gizona	Emakumea
Motak	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%
GUZTIRA	1,9	,7	3,2	,4	,2	,6	1,7	,5	2,8	8,9	6,5	11,5	3,5	2,8	4,3
KIDE BAKARREKOAK	,7	1,3	,0	,0	,0	,0	1,6	,8	2,4	8,9	9,2	8,6	1,6	1,5	1,7
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	4,3	7,3	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	5,7	,0	12,3	,0	,0	,0
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	,7	,0	1,9	,0	,0	,0	1,9	,0	5,0	20,9	32,1	7,3	16,8	24,6	7,3
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	,1	,2	,0	,2	,3	,0	,7	,0	1,2	8,5	7,8	9,3	3,0	2,1	4,0
Guraso ez diren ezkontideak	,0	,0	,0	,0	,0	,0	1,1	,0	2,3	5,3	5,1	5,6	1,5	1,0	2,2
Guraso izandako ezkontideak	,1	,3	,0	,2	,5	,0	,4	,0	,8	12,2	11,5	12,9	4,8	3,7	5,7
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	3,0	,6	5,5	,4	,1	,7	2,1	,6	3,6	8,9	6,0	12,4	3,7	3,0	4,6
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	3,7	,8	6,9	,5	,1	,8	2,4	,6	4,4	10,6	7,1	14,7	4,5	3,7	5,5
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,6	,4	,8	2,6	1,7	3,6	,7	,2	1,2
GURASO BAKARREKOAK	1,4	,7	1,9	1,3	,9	1,5	1,7	,0	2,7	9,6	2,6	13,4	3,3	,7	4,7
Mendeko seme-alabak dituztenak	1,5	,8	1,7	1,4	,0	1,9	2,5	,0	3,5	14,6	7,0	16,2	5,0	3,3	5,3
Mendeko seme-alabarik ez dutenak	1,4	,6	2,1	1,1	1,4	,8	,8	,0	1,5	6,1	1,4	10,4	2,2	,0	4,1
NUKLEO ANITZEKOAK	,6	1,3	,0	1,2	1,3	1,1	,6	1,3	,1	3,4	,0	6,6	2,2	,0	4,2

ADIERAZLEAK

1. ADIERAZLEA: Azken 3 urteetan lana eta familia bateratzearekin loturiko arazoengatik –gutxienez, familiako lanaren gehiegizko kargekin loturiko arazoren batekin lotuta, edo seme-alabaren jaiotzarekin (amatasun/aitatasun baja amaitu ondoren) lotuta– lan-jarduera eten egin behar izan duten 16-69 urte bitarteko pertsonen %.

2. ADIERAZLEA: Adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeko beharragatik lan egin ezin duten 16-69 urteko pertsonen %.

3. ADIERAZLEA: Azken 10 urteetan familiako lanaren gehiegizko kargen ondorioz edo seme-alaba jaiotzearen ondorioz lana utzi duten 16-69 urte bitarteko pertsonen %.

4. ADIERAZLEA: Etxeko esparruan eta kanpoan astean 60 ordu baino gehiago lan egiten duten pertsonen %.

5. ADIERAZLEA: Etxeko esparruan eta kanpoan astean 70 ordu baino gehiago lan egiten duten pertsonen %.

Iturria: FFEI. EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Sexuaren arabera eta familia motaren arabera aztertutako arazoan eragina aintzat hartuta, egiaztatu da lana duten emakume kaltetuenak guraso izandako ezkontideen etxeetakoak edota mendeko seme-alabak dituzten gurasoen edo guraso bakarrekoen familiak direla. Mota horietako familietan, lana duten emakumeen % 12,9-16,2 inguruk astean 60 ordu baino gehiago ematen ditu laneko eta etxeko zereginetan. % 5,7 eta % 5,3 bitartean, astean 70 ordu baino gehiago ematen dituzte jarduera horietan.

Mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarrekoe familietan bizi diren emakume landunen kasuan, eragina duten pertsonen proportzioa ez da gehiegi urruntzen aurreko taldetik: % 10,4 eta % 4,1, hurrenez hurren. Ahaide ez diren kide anitzeko familia-etxeetan bizi diren emakume landunen artean ere proportzio altua dago astean 60 ordu baino gehiago laneko eta etxeko zereginetan aritzen direnei dagokienez (% 12,3), nahiz eta batez ere ez duen gainditzen 70 orduko edo gehiagoko maila.

Bi etxe motetan, gizonen gehiegizko jarduera (familiako eta laneko kargekin lotuta) esanguratsua da. Alde batetik, guraso izandako ezkontideen etxeetan bizi diren gizonak daude, eta lehenago aztertutako kopuruen antzekoak dira: % 11,5 eta % 3,7. Beste alde batetik, nukleorik gabeko familia-etxeetan bizi diren gizonen egoera ikusten da. Kasu horretan, alde handiz ikusten dira gehiegizko jardueraren portzentaje handienak. Kasu honetan, gizon landunen % 32,1ek astean 60 ordu baino gehiago ematen dituzte laneko eta etxeko zereginetan. Proportzio hori % 24,6koa da 70 ordu baino gehiago ematen dituztenak aztertzean (% 7,3 bi kasuetan emakumeen artean).

Aztertutako arazoan eragina oraindik ere garrantzitsua da, nahiz eta garrantzia txikiagoa izan. Kide bakarrekoe etxeetan, gizon landunen % 9,2k eta emakume landunen % 8,6k 60 ordu baino gehiago ematen dituzte laneko eta etxeko zereginetan. 70 ordu baino gehiago ematen dutenen proportzioa askoz ere txikiagoa da (% 1,5 eta % 1,7 hurrenez hurren).

Beste alde batetik, eskura ditugun datuek adierazten dute etengabeko arreta eskatzen duten mendetasun-egoerek etxeko erreferentziako pertsonen % 2,4ri eragiten dietela (% 2,1i erreferentzia biztanleria osoa bada). Familia-etxeen % 5ean, mota horretako mendetasunen bat duen norbait dago.

Etengabeko mendetasun-egoeren presentzia handiena ahaideak ez diren kide anitzeko familia-etxeena da (% 20,7 familia-etxeri eragiten die), eta, ondoren, nukleorik gabeko familiena (% 16,9) eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarrekoeak (% 14,3). Mota horretako arazoak dituzten erreferentziako pertsonen pisua garrantzitsua da: % 20,7 ahaide ez diren kide anitzeko etxeetan, eta % 10,1 eta % 10,8 nukleorik gabeko familietan eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarrekoe familietan.

Familia-etxeen % 6,1 eta % 8,7 artean, pertsonaren bat dute etengabeko mendetasunarekin guraso izandako ezkontideen etxeetan, mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen familietan, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarrekoe familietan eta nukleo anitzeko familietan. Soilik azken familia-etxe horietan gainditzen du pertsonen eraginak erreferentziako pertsonen (% 5,7) % 5.

15.A taula

Familia-etxeetan/etxeetan etengabeko mendetasuna duten pertsonen eta pertsonaren bat egoera horretan duten familia-etxeen proportzioa, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE 2015. urtea
(Erreferentziatzko pertsonen, biztanleria osoaren eta familia-etxe guztien %)

Motak	Erreferentziatzko	Biztanleria, guztira	Mendetasuna duen
	pertsonak		pertsonaren bat
	Etengabeko mendetasuna duten pertsonak	Etengabeko mendetasuna duten pertsonak	
	%-tan	%-tan	%-tan
GUZTIRA	2,4	2,1	5,0
KIDE BAKARREKOAK	2,6	2,6	2,6
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	20,7	8,4	20,7
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	10,1	8,5	16,9
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	2,6	3,0	5,6
Guraso ez diren ezkontideak	,9	,8	1,7
Guraso izandako ezkontideak	3,1	3,6	6,8
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	,8	,9	3,2
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	,2	,5	2,0
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	2,9	2,4	8,0
GURASO BAKARREKOA	6,2	4,1	10,1
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	2,0	2,3	6,1
Mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarrak	10,8	6,2	14,3
NUKLEO ANITZEKOA	5,7	2,5	8,7

Oharra: Ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko bigarren mailako unitateetan dauden pertsonak.

Iturria: FFEI. EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

15.B taula

Mendetasuna ekar dezaketen arazoak dituzten biztanleak, hirugarren pertsonen mendetasun motaren arabera
Eguneko arreta-orduen batez bestekoa, ahaideen eta familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE 2015. urtea
(Orduen batez bestekoa)

Motak	MENDEBASUNIK	Noizean	Etengabekoa/Hedatua	MENDEBASUNAREKIN
	GABE	behingoa		
	Orduen batezbestekoa	Orduen batezbestekoa		Orduen batezbestekoa
GUZTIRA	1,6	3,8	9,7	5,2
KIDE BAKARREKOAK	,2	2,6	8,7	3,0
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	1,4	.	3,8	3,4
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	,8	8,6	6,4	6,9
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	2,0	3,8	9,5	4,9
Guraso ez diren ezkontideak	,0	1,3	11,1	3,1
Guraso izandako ezkontideak	2,3	3,9	9,4	5,1
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	2,3	5,4	11,5	6,3
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	3,4	6,6	8,8	6,0
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	,5	3,9	14,1	6,6
GURASO BAKARREKOA	1,9	2,3	11,7	6,2
Mendeko seme-alabak dituztenak	2,9	2,1	10,8	6,1
Mendeko seme-alabarik ez dutenak	1,1	2,4	12,2	6,2
NUKLEO ANITZEKOA	6,0	1,6	10,6	6,2

Oharra: Ez dira kontuan hartu bigarren mailako unitateetan dauden pertsonak

Iturria: FFEI. EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

FFEIk adierazten du, mendetasuna ekar dezaketen arazoak dituzten biztanleen artean, lotura estua dagoela hirugarren pertsonen mendetasun-mailaren eta familiako kargak artatzeko eguneroko intentsitatearen artean. Egunero batez beste 1,6 ordu ematen dituzte hirugarren pertsonak benetako mendetasunik ez duten kasuetan. Kopurua 3,8 ordukoa da noizbehinkako mendetasun mota horien kasuan, eta 9,7koa etengabeko mendetasunaren kasuan (edo mendetasun hedatua 6 urtetik beherako kasuan).

3 urtetik beherako biztanleei dagokienez, egiaztatu da mota horietako biztanleak etxean % 6,1ean dutela presentzia. Gehieneko proportzioa % 19,5koa da mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan. Proportzioak nukleo anitzeko etxeen batez bestekoaren oso antzekoa izaten jarraitzen du (% 15,1). Guraso bakarreko etxeen % 5,2an 3 urtetik beherakoak daude.

16.A taula	
2013 eta 2015 urteetan artean jaiotako biztanle adingabeak dituzten familia-etxeen/familien proportzioa, EAEko familia-etxe eta familia motaren arabera 2015. urtea	
(Familien %)	
Motak	Baten bat 2013/2015 urteen artean jaiota %-etan
GUZTIRA	6,1
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	19,5
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	5,2
NUKLEO ANITZEKOAK	15,1

Iturria: FFEI, EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

3 urtetik beherako biztanleen % 45 zentroetara edo haurtzaindegietara joaten dira. Proportzioa aldatu egiten da adinarekin. % 22,8 0 urteko adingabeen kasuan; % 50,4koa urtebete duten biztanleen kasuan, eta gehienez ere % 64,1 2 urteetan.

16.B taula				
2013. eta 2015. urteen artean jaiotako biztanle adingabeak, zentroetara edo haurtzaindegietara joaten diren aintzat hartuta eta familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE 2015. urtea				
(adingabeen %)				
Adina	0 urte	urte 1	2 urte	GUZTIRA
	% zaindua	% zaindua	% zaindua	% zaindua
GUZTIRA	22,8	50,4	64,1	45,0
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	25,5	50,6	65,7	46,3
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	,0	62,2	52,9	34,8
NUKLEO ANITZEKOAK	,0	,0	58,6	30,8

Oharra: Ez dira kontuan hartu bigarren mailako unitateetan dauden pertsonak

Iturria: FFEI, EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Familia motaren arabera, zaintzaren proportzio altuena mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeek dute: % 46,3. Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien proportzioa, berriz, % 34,8koa da, eta nukleo anitzeko etxeena, % 30,8koa. Urte bateko haurren artean soilik da handiagoa mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan zaindutako adingabeen kopurua, mota horietako seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan baino.

5. Familiak babesteko neurrien berri izatea

FFEln, aztertu egiten dira euskal erakunde publikoek familiei ematen dizkien laguntza nagusiak. Bereziki arreta jartzen du mota hauetako laguntzetan:

- * Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak
- * Hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzia
- * Adingabeko seme-alabak etxean bertan zaintzeko langile bat kontratatzeko laguntza
- * 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa
- * Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko lan-eszedentzia
- * Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko lanaldi-murrizketak

Laguntzen gaineko ezagutza-mailari buruzko datuek agerian uzten dute familia-etxe eta familien % 35,1ek baduela seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzen berri. Lana eta familia bateragarri egiteko esparruan, ezagunenak 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketarekin loturikoak (% 39,9) eta 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lan-eszedentziarekin loturikoak (% 38,7) dira. Mendetasuna duten edo osasun-egoera larrian dauden ahaideak zaintzera bideratutako laguntzei dagokionez, ezagutza-maila % 31-32 ingurukoa da. Gutxien ezagutzen den neurria 3 urtetik beherako seme-alabak etxean zaintzeko norbait kontratatzeko diru-laguntzarena da (% 18,2).

Ezagutza-maila askotarikoa da, familia moten arabera. Ezagutza-maila handiena mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan ikusten da, adingabeak zaintzeko eszedentziarako nahiz lanaldi-murrizketarako laguntzei dagoena (% 62,5ek eta % 64,2k ezagutzen dituzte, hurrenez hurren), baita, neurri txikiagoan bada ere, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzei dagozkienak ere (% 55,2).

Neurri horien ezagutza-maila % 40tik gorakoa da mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan, baina, oro har, ezagutza-maila gurasoen etxeetan baino 10-20 puntu inguru gutxiagokoak dira. Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei dagokienez izan ezik, % 40,7 izanik (% 46,9 mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarren familietan), ezagutza-maila handiagoa dago guraso ez diren ezkontideen etxeetan, batez ere 12 urtetik beherako adingabeak zaintzeko lanaldi-murrizketaren neurriari dagokionez (% 53 eta % 43,2 hurrenez hurren, eta % 46,7 eta % 40 hurrenez hurren 3 urtetik beherako adingabeak zaintzeko lan-eszedentziari dagokionez).

% 40 gainditzen du, halaber (% 40,2 eta % 44,2 zehazki), mendetasuna duten edo osasun-egoera larrian dauden ahaideak zaintzeko laguntzen gaineko ezagutza-mailak, zehazki, guraso izandako ezkontideen etxeetan eta mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan.

Nukleo anitzeko etxeetan, etxeen % 40k baino gehiagok ezagutzen duten neurri bakarra 12 urtetik beherako adingabeak zaintzeko lanaldi-murrizketarena da, ezagutza-maila % 45ekoa baita.

Neurri horien berri duten familien artean, babes-maila, oro har, % 90etik gorakoa da. Identifikazio txikiagoa ikusten da nukleo anitzeko etxeetan. Babes-mailak % 73,7 eta % 84,9 ingurukoak dira. % 80ren azpitik daude mendeko pertsonak zaintzeko eszedentziarako laguntzei buruzko (% 79,3) eta 3 urteko adingabeak zaintzeko pertsonak kontratatzekeo diru-laguntzari buruzko (% 73,7) balorazioak.

Laguntzen erabilerari dagokionez, % 8,4k adierazi du seme-alabak zaintzeko laguntzetara jo izana. Proporzio hori nukleo anitzeko % 16,3ra iristen da mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan, eta % 25,4ra mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan. Laguntza horiek erabili dituen alde batek azpimarratzen du laguntzak urriak direla edo ez direla nahikoak, gutxienez mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeen % 71,7k. Benetan nahikoak ez direla usten dutenen portzentajea % 30,4koa da. Kopuru horiek zertxobait baxuagoak dira mendeko seme-alabak dituzten gurasoen eta guraso bakarren etxeetan (% 29,8 eta % 27,5). Nukleo anitzeko etxeetan, berriz, proportzioa igo egiten da.

Adingabeak zaintzeko eta lana uztartzeko laguntzei dagokienez, % 5ek adierazten du 12 urtetik beherako adingabeak zaintzeko lanaldi-murrizketa erabili dutela; % 2,9k lan-eszedentzia hartu dutela 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko, eta % 0,1ek hirugarren pertsona bat kontratatu dutela mota horietako adingabeak zaintzeko. Maila altuenak mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeei (horietako % 15,6k momenturen batean lanaldi-murrizketa hartu du, eta % 8,9k lan-eszedentzia) dagokie, eta, ondoren, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxeei, nahiz eta maila askoz ere baxuagoa izan (% 7,8 eta % 4,1). Nukleo anitzeko etxeen % 3k adierazten du 12 urtetik beherakoak zaintzeko lanaldi-murrizketarako laguntzak eskuratu dituztela. Oro har, laguntza horiek eskuratu dituzten familien % 15ek adierazi dute erabilgarritasuna urria edo ezdeusa izan dela.

Mendetasuna duten edo osasun-egoera larrian dauden pertsonak zaintzeko laguntzak maila apalagoan erabili dira: % 0,3 inguru eszedentziari dagokionez, eta % 0,7 lanaldi-murrizketari dagokionez. Mailak % 2-3koak dira lanaldi-murrizketari dagokionez mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan eta eszedentziari dagokionez nukleo anitzeko etxeetan. Adingabeentzako laguntzen kasuan bezala, balorazio orokorraren arabera, neurri horiek erabilgarriak izan dira, batez ere intzidentziaren dimentsioari dagokionez. Balorazioen % 8,8k uste du erabilgarritasun urria edo ezdeusa duela. Balorazio horiek, ordea, % 34,2ra igotzen dira inguruabar horietako lanaldi-murrizketari dagokionez.

17.a taula
Familiei laguntzeko neurri jakin batzuen berri duten familia-etxeak/familiak, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE 2015. urtea
(neurria ezagutzen dutenen %)

Motak	Seme-alabak dituzten familiak	<3 urteko seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzia	<3 urteko seme-alabak zaintzeko norbait kontratatzeko	<12 urteko seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa	Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentzia	Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko lanaldi-murrizketa
	%	%	%	%	%	%
GUZTIRA	35,1	38,7	18,2	39,9	31,8	31,2
KIDE BAKARREKOAK	26,3	26,9	15,1	27,7	26,0	24,5
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	21,4	20,3	6,0	17,3	18,5	19,5
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	16,7	19,8	10,6	22,3	23,5	26,0
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	25,4	30,1	14,9	30,9	26,0	25,4
Guraso ez diren ezkontideak	40,7	46,7	21,8	53,0	40,2	41,6
Guraso izandako ezkontideak	20,8	25,2	12,8	24,3	21,8	20,6
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	49,2	56,1	23,6	57,9	40,9	40,3
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	55,2	62,5	25,3	64,2	44,2	43,9
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	25,8	31,3	16,8	33,2	28,1	25,9
GURASO BAKARREKOA	34,8	33,1	17,0	34,0	31,8	32,1
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	46,9	40,0	18,9	43,2	34,5	36,1
Mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarrak	21,8	25,6	14,9	24,2	28,8	27,7
NUKLEO ANITZEKOA	36,9	38,4	22,0	45,0	27,9	29,4

Iturria: 2015eko FFEI EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

17.b taula

Familiei laguntzeko neurri jakin batzuk ezagutzen dituzten eta beharrezkotzat jotzen dituzten familia-etxeak/familiak, familia-etxe eta familia motaren arabera EAE 2015. urtea
(%-k beharrezkotzat jotzen dituzte)

Motak	Seme-alabak dituzten familiak	<3 urteko seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzia	<3 urteko seme-alabak zaintzeko norbait kontratatzeko	<12 urteko seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa	Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentzia	Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko lanaldi-murrizketa
	%	%	%	%	%	%
GUZTIRA	98,2	97,7	96,5	97,4	98,7	98,4
KIDE BAKARREKOAK	97,6	98,7	97,0	98,3	99,6	99,6
KIDE ANITZEKOAK, AHAIDETASUNIK GABE	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	94,9
FAMILIA, NUKLEORIK GABE	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	98,8	97,2	97,1	96,6	98,4	98,5
Guraso ez diren ezkontideak	99,5	97,0	95,1	95,7	98,6	98,7
Guraso izandako ezkontideak	98,5	97,4	98,1	97,2	98,3	98,4
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	98,4	97,5	97,2	97,6	98,7	98,3
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	98,2	97,4	97,1	97,7	98,7	98,3
Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak	100,0	98,0	97,6	96,3	98,6	98,5
GURASO BAKARREKOA	99,2	99,2	94,7	97,3	100,0	99,3
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	100,0	98,7	98,3	95,9	100,0	100,0
Mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarrak	97,4	100,0	89,7	100,0	100,0	98,3
NUKLEO ANITZEKOA	84,3	84,9	73,7	87,1	79,3	80,3

17.c taula
Inoiz familiei laguntzeko neurri jakin bat eskuratu duten familia-etxeak/familiak, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE 2015. urtea
(%-ek eskuratu dute)

Motak	Seme-alabak dituzten familiak	<3 urteko seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzia	<3 urteko seme-alabak zaintzeko norbait kontratatzeko	<12 urteko seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa	Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentzia	Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko lanaldi-murrizketa
	%	%	%	%	%	%
GUZTIRA	8,4	2,9	,1	5,0	,3	,7
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	25,4	8,9	,4	15,6	,4	1,3
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	16,3	4,1	,0	7,8	,6	3,2
Nukleo anitzekoa	11,5	,0	,0	3,0	2,0	,0
Bestelakoak	,2	,2	,0	,1	,2	,3

Iturria: 2015eko FFEI EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

17.d taula

Inoiz familiei laguntzeko neurriren bat eskuratu duten, eta nahikoak ez direla, mugatuak direla edota gutxi edo bat ere ez laguntzen dutela uste duten familia-etxeak/familiak, familia-etxe edo familia motaren arabera EAE 2015. urtea
(%-ek uste du ez direla nahikoak, mugatuak direla edo laguntza gutxi edo bat ere ez ematen dutela)

	Seme-alabak dituzten familiak:		<3 urteko seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzia: Gutxi edo bat ere ez	<3 urteko seme-alabak zaintzeko norbait kontratatzeko Gutxi edo bat ere ez	<12 urteko seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa: Gutxi edo bat ere ez	Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentzia: Gutxi edo bat ere ez		Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko lanaldi-murrizketa: Gutxi edo bat ere ez
	Ez dira nahikoak edo mugatuak dira	Seme-alabak dituzten familiak: Ez dira nahikoak				%	%	
Motak	%	%	%	%	%	%	%	%
GUZTIRA	72,4	30,4	12,0	13,6	11,2	8,8	34,2	
Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	71,7	29,8	12,6	13,6	11,7	,0	30,2	
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	74,3	27,5	11,3	.	7,6	,0	38,9	
Nukleo anitzekoa	87,5	60,4	.	.	,0	,0	.	
Bestelakoak	76,5	42,7	,0	.	7,2	23,8	37,0	

Iturria: 2015eko FFEI EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

GEHIGARRI ESTATISTIKOA

Gehigarri estatistikoa honako esteka honetan dago:

<http://www.euskadi.eus/estatistika/2015eko-euskal-familien-eta-familia-etxeetako-inkestak-ffe-k-buruzko-taula-estatistikoak/web01-s2enple/eu/>

ERANSKINA: ALDERDI METODOLOGIKOAK

FFEIren alderdi metodologiko nagusiak dagoeneko aztergaiaren sarreran jaso ditugu. Testu zati honetan, FFEIren alderdi orokorreari buruzko gogoeta osagarri batzuk jaso ditugu, baita estatistikara hurbiltzean kontuan hartu beharreko definizio nagusiak ere.

Alderdi orokorrak

FFEI 2015, guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko 3.453 familia-etxebizitzari aplikatu zaie. Eskualde hauen arabera banatuta daude:

FFEIren laginaren amaierako banaketa, eskualdeen arabera. Familia-etxebizitzak

Eskualdeak	Familia-etxebizitzak
Gasteiz	583
Aiaraldea	224
Eskuinaldea	240
Bilbao	385
Ezkerraldea	401
Bizkaia-Kosta	225
Durungaldea	224
Donostialdea	536
Tolosa-Goierrri	263
Debagoiena	192
Debarrena	180
Guztira	3.453

Familia-nukleoa

Familia-nukleoa FFEIn harreman- edo ahaidetasun-lotura estuetara mugatuta dago (gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetara). Aurrekoa kontuan hartuta, nukleo mota hauek mugatu dira:

- * Oinarrian senar-emazteak edo bikoteak dituena, seme-alabarik gabe (guraso ez diren familia nuklearrak).
- * Oinarrian senar-emazteak edo bikoteak dituena, seme-alabekin eta berezko nukleorik osatu gabe (guraso diren familia nuklearrak)
- * Guraso bakar baten inguruan osatutakoak, seme-alabekin berezko nukleorik osatu gabe (guraso bakarreko familia nuklearrak)

Etxe baten barruan, adierazitakoaren antzeko nukleo bat edo gehiago egon daitezke. Nukleo bat baino gehiago badago, nukleo anitzeko etxe mota bat izango da. Etxeko lehen nukleoa izango da erreferentzia FFEIn (etxeko **nukleo nagusia**).

Senar-emazteak edo bikoteak sexu berekoak edo ezberdinekoak izan daitezke. Familia-nukleotzat hartzean, parekatuta geratzen dira.

Oinarrian senar-emazteak edo bikoteak dituzten nukleoen alderdi zehatzak

Familia-nukleoaren barruan dauden harreman motak

Garrantzitsua da kontuan hartzea harreman- edo ahaidetasun-loturen gertutasuna kasuan kasuko egoeretan oinarrituta dagoela. Harreman horiek ez dira zertan legez formalizatuta egon. Ildo horretan, FFEIn hiru harreman mota egon daitezke senar-emazteen edo bikoteen harreman batean oinarrituta:

- * Ezkontza.
- * Izatezko bikoteen erregistroan inskribatutako bikoteak.
- * Aurrekoekin loturiko inolako harreman formalik ez duten bikotek.

Senar-emazte edo bikoteen nukleoari dagokionez, adierazitako guraso-nukleoen harremanak FFEIn erabat parekagarritzat jotzen dira.

Nukleoaren jatorria

FFEIk, era berean, oinarrian senar-emazteak edo bikoteak dituzten hainbat familia-nukleo bereizten ditu nukleoaren jatorria aintzat hartuta, betiere kontuan hartuta batasun hori zer momentutan sortu den. Hala, nukleoak osatzen duen senar-emazte edo bikotearen batasuna hauen arabera bereiziko da:

- * Jatorrizko nukleoa, pertsonen lehen ezkontza edo bikotea.
- * Berriz osatutako nukleoa, pertsonak ezkontza edo bikoteen bidez bigarren aldiz elkartzen direnean.

Seme-alaben arteko harremana

Oinarriak senar-emazteak edo bikoteak dituzten familia-nukleoen barruan, FFEIk nukleoko kideekin lotuta seme-alaben artean dagoen harreman mota aztertzen du. Hala, honako hauek ote diren bereizten du:

- * Bikoteko bi kideen seme-alabak
- * Bikotearen kide bakar baten seme-alabak

Familia-nukleoan edo etxearen oinarrian sartuta ez dauden pertsonak

Etxeko familia-oinarriaren barruan ez dauden pertsonak, bai familia-nukleo bat denean, bai nukleorik gabeko familia-taldea edo pertsona bakarra denean, pertsona isolatutzat jotzen dira FFEIn. Ez dira aintzat hartuko gizarte-arazoei, karga pertsonalei edo familiei laguntzeko politika publikoak

jakinarazteari nahiz eskuratzeari buruzko gaiak jorratzen dituzten galdeketen alderdi ez demografikoan. Hala, biztanleriarekin (eta ez familia-etxearekin) loturiko alderdi horiek jasotzen dituzten tauletan ez dira aintzat hartzen.

Erreferentziazko pertsonak

FFEIn, etxeko erreferentziazko pertsonen barruan, alde batetik, etxe barruan solaskide nagusi gisa aipatzen den pertsona sartzen da. Familia-nukleoaren kasuan, erreferentziazko pertsonatzat jotzen da, modu berean, ezkontidea edo bikotekidea, horien arteko harremana edozein izanik ere (ezkontza, erregistratutako bikotea edo erregistratu gabeko bikotea). Horiek guztiak erreferentziazko pertsonatzat jotzen dira galdeketa-aren testuinguruan.

Solaskide nagusia zehazteko, etxeko erreferentziazko pertsonari eragin gabe, erabakigarria da etxebizitzaren titulartasunari buruzko irizpidea (bai etxeko jabeari dagokionez, bai alokairuaren formalizazioari dagokionez).

Jarduerarekiko harremana

FFEIn, biztanleria-kategoria hauek hartu dira kontuan jarduerarekin lotuta:

Biztanleria landuna:

Norbere kontura familiako negozio batean etenik gabe lan egiten duten biztanleak hartzen ditu barne, aldi baterako lan soldatadunarekin edo lan mugagabearekin nahiz zaintzaile ez profesional gisa. Gaixotasunagatik edo amatasunagatik aldi baterako bajaran dauden pertsonak hartzen ditu barne.

Lan prekarioa duen biztanleriaren barruan, egoera hauetakoren batean dauden pertsona landunak sartzen dira:

* Gizarte Segurantzari edo pareko kotizazio-erregimenetan (MUFACE, etc.) kotizatzen ez duten landunak.

* Aldi baterako lana duten edo kontraturik gabeko landunak (obrako edo zerbitzuko lanak barne).

Biztanleria langabea:

Langabezia duen biztanleak hartzen ditu barne.

Iraupen luzeko langabeziaren barruan, urtebete baino gehiago lana bilatzen ari diren biztanle langabeak hartzen ditu barne. Iraupen oso luzeak egoera horretan bi urte edo gehiago daramaten pertsonak hartzen ditu ardatz.

Lan prekarioa duen biztanleria:

Lan prekarioa duten biztanleen barruan, lan prekarioan ari diren biztanle landunak eta biztanle langabeak sartzen dira.

Aurreko sailkapenekin lotuta, garrantzitsua da adieraztea norberak bere buruari eginiko hurbilketa dela; hau da, LANEren irizpideetan oinarritutako helburu motaren hurbilketatik ateratakoaren ezberdina.

Informazioa galdeketa egin aurreko astean dagoen egoerari dagokio. Etxe barruan solaskidearen eginkizuna egiten duen pertsonak adierazten du.

Diru-sarrerak eskuratzea

FFEIIn, diru-sarrerak eskuratzeko aukera galdeketa egin aurreko hilabetean dagoen egoera hartzen da kontuan.

Diru-sarrerarik ez duen biztanleria:

Aipatutako hilabetean inolako diru-sarrerarik izan ez zuten biztanleak hartzen ditu barne.

Talde honen batez bestekoan, 25 urtetik gorako biztanleak eta 18tik 24ra bitartekoak sartzen dira (ikasleak ez direnak).

Etxebizitza edukitzeko erregimena

Etxebizitza izateko erregimenari buruzko azterlanaren batez bestekoa sailkapen honetan oinarrituta dago:

- * Etxeko kide bakar bat jabea izatea
- * Etxean bizi diren bi pertsona edo gehiago jabeak izatea
- * Jabekide mistoa (etxean bizi ez diren eta bizi diren pertsonenak)
- * Familiako kide batek lagata (doan erabiltzeko)
- * Administrazio batek lagata (doako erabiltzeko)
- * Enpresak lagata (doan erabiltzeko)
- * Alokairu soziala
- * Alokairu librea
- * Etxeko kide batek baino gehiagok alokatuta
- * Landuna

Minusbaliotasun-egoerak egotea

FFEIk urritasunarekin, minusbaliotasunarekin, osasun-arazo kronikoekin, adinarekin edo eguneroko eginkizunak gauzatzeko beste pertsona batzuen beharra ekar dezaketen beste arazo batzuk hartzen ditu kontuan.

Mendetasun-eskalaren posizioak

Aurreko puntuan jasotzen diren mendetasun-egoerak ekar ditzaketen egoeren aurrean, norberak sailkatuta posizio hauek zehazten dira mendetasunarekin lotuta:

- * Mendetasunik gabe: hirugarren pertsonetikiko mendekotasunik eza
- * Noizean behingoa: noizean behin hirugarren pertsonetikiko mendetasuna
- * Etengabekoa: etengabe hirugarren pertsonetikiko mendetasuna
- * Hedatua: 6 urtetik beherako pertsonen kasuan, normalean baino arreta gehiago behar izatea

Hirugarren pertsonetikiko mendetasuna duten biztanleen artean, kategorია hauek daude: aldi baterakoa, etengabekoa eta luzatua.

Etengabeko mendetasuna duten biztanleak

Hirugarren pertsonetikiko etengabeko mendetasuna dutela adierazten duten pertsonak hartzen ditu barne, baita haien adin-tarterako normalean baino arreta handiagoa eskatzen duten 6 urtetik gorako adingabeak ere. Praktikan, talde horrek etengabeko kategorian eta kategoría luzatuan sartutako biztanleei egiten die erreferentzia.

Beste egoera sozio-demografiko batzuk

Jatorrizko nazionalitatea

Atzerriko biztanle immigranteen eragina zehazteko (edo jatorrizko atzerritarrena), jatorrizko beste nazionalitate bat aldaeraren barruan, espainiarra ez den nazionalitateari soilik eusten dieten pertsonak nahiz nazionalitate espainiarra nazionalizazio-prozesuen bidez lortu duten pertsonak hartzen ditu barne.

Ikasten ari diren biztanleak

Ikaskuntza arautuan ari diren ikasleez gain, etengabeko ikaskuntza-prozesuetan edo ikaskuntza ez arautuan parte hartzen duten, eta ikaskuntza-prozesuaren testuinguruan ordaindu gabeko lan-praktikak egiten ari diren pertsonak sartzen dira.

Hainbat gizarte-arazori buruzko adierazleak

Gizarte-arazoen garrantziari eta larritasunari buruzko adierazleak

FFEn ikusitako gizarte-arazoak, modu zehatzean edo multzoan, aztertu egingo dira, biztanleek ematen dieten garrantzia eta larritasuna aintzat hartuta. Batez bestekoa aztertutako arazolari ematen zaion garrantzi-eskalan (oso gutxi, gutxi, nahiko, asko edo pila bat) ezarritako posizioa aintzat hartuta kalkulatu da.

Hauek dira FFEIn larritasunaren eta garrantziaren arabera definitutako adierazle nagusiak:

Arazoekin

Arazoren bat duten egoerak sartzen dira, nahiz eta familian edo etxean arazo horri garrantzi gutxi edo oso gutxi ematen zaion.

Batez besteko honek etheen barruan edo etxe horietako pertsoneri dagokien arazo bakoitzaren **eragin orokorra** adierazten du.

Arazo larriak:

Kasu honetan, berriaz familian edo etxean garrantzi asko edo pila bat ematen zaion arazoak sartzen dira.

Batez besteko honek etheen barruan edo etxe horietan bizi diren pertsonen artean **eragin larria** dutenak sartzen dira.

Arazo nagusia:

Etxeok kezkatzen dituen arazo nagusiari egiten dio erreferentzia.

Batez besteko horrek etxe barruan edo etxe horietan bizi diren pertsonen artean **lehentasunezko eragina** aztertzea dakar.

Arazo ezberdinen batez bestekoa modu zehatzean nahiz multzoan egiten da. Azken kasu horretan, arazo zehatz bakoitzean aurkitutako larritasun handieneko esparrua sartzen da. Arazo horiek arazo moten multzo bakoitzaren barruan aztertzen dira.

Garrantziaren indizea

Arazoren bat edo arazo multzoren bat dagoela adierazten duten etxeen kasuan, edota etxe horietan bizi diren pertsonen kasuan, garrantziaren indizearen bidez, arazoari emandako garrantzi-eskalan posizioa era sintetikoan (oso gutxi, gutxi, nahiko, asko edo pila bat) mugatzen da. Aipatutako etxeen barruan eta pertsonen artean, indizea arazoari edo arazoen multzoari emandako garrantziaren neurri gisa kalkulatzen da, garrantziaren esleipen honi jarraikiz:

Oso garrantzi gutxi:	2
Garrantzi gutxi:	4
Nahiko garrantzitsua:	6
Garrantzi handia:	8
Oso garrantzi handia:	10

Indizea 0 eta 10 bitarteko eskala teorikoan kalkulatzen da. Praktikan, ordea, 2 eta 10 artean dago, aztertutako arazoak dituzten etxeetan oinarritutako analisien kasuan.

Larritasun-indizea

Arazoren bat edo arazo multzoren bat duten etxeen kasuan, edota etxe horietan bizi diren pertsonen kasuan, larritasun-indizeak informazio osagarria ematen du garrantziaren indizeari dagokionez. Ildo horretan, aintzat hartutako talderako, larritasun-indizeak erakusten du arazoak (edo aztertutako arazo multzoak) garrantzi asko edo pila duela arazoaren edo arazoen multzoaren garrantziari buruzko balorazio guztiei dagokienez.

Indizea ehunekoetan kalkulatzen da.

Programa publiko jakin batzuk ezagutzea

Neurrien beharra

FFEIn aintzat hartutako familiei laguntzeko familien kasuan, beharrezko edo oso beharrezko familiazat jotzen diren etxeak hartzen dira barne.

Neurrietan parte hartzea

FFEIn aintzat hartutako familiei laguntzeko neurrietarako sarbide-adierazleen barruan, iraganean ikusitako neurrietara sarbidea izateko modu guztiak hartzen dira barne, duela 5 urte baino gehiago sortu direnak barne.

Neurrien erabilera

Familiei laguntzeko neurrietara jotzen duten biztanleen kasuan, erabilitako neurriak begi onez ikusten dituzten biztanleen zatia eta erabilitako neurrien inguruan iritzi onik ez duten familiaena hartzen da kontuan. Horren barruan, honako hauek aztertzen dituztenak sartzen dira:

- * Diru-esleipena dakarten neurriei dagokienez, emandako zenbatekoak urriak izan direla edo nahikoak izan ez direla esan nahi du.
- * Laguntza pertsonalei dagokionez, laguntza horiek oso gutxi lagundu dietela edo bat ere ez.

TXOSTENAREN AURKIBIDEA

ATARIKOA.....	3
Txostenaren edukia.....	5
Euskal familien eta familia-etxeen hurbilketaren alderdi orokorrak.....	6
EMAITZA NAGUSIAK	9
1. FAMILIAK ETA FAMILIA-ETXEAK: Oinarrizko ezaugarri soziodemografikoak	11
Familia eta familia-etxe motak	11
Adierazle demografiko nagusiak.....	12
Familien batez besteko tamaina txikia.....	15
Emakumeek pisu handia dute familiako erreferentziazko pertsonen artean, bereziki kide bakarreko familietan eta guraso bakarreko familietan.....	15
Zahartzearen eragina	15
Familietan erreferentziazko pertsonen batez besteko handia	15
Ikasteko adinean dauden biztanle adingabeek gutxiengoa osatzen dute	16
Jatorri atzerritarra duten biztanleen garrantzia ahaide ez diren kide anitzeko familietan, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan eta nukleo anitzeko etxeetan.....	17
Jarduerarekiko harremana	17
Landunak izateko joera gehien duten familiak, familia osoan prekarietate gutxiago izanik: guraso ez diren ezkontideak eta mendeko seme-alabak dituzten guraso ezkontideak.....	19
Tarteko posizioak: mendekoak ez diren seme-alabak dituzten familiak eta nukleo anitzeko familiak	19
Prekarietate handiena oinarrian familia-nukleorik ez duten familietan eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan.....	20
Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak.....	20
Ahaiderik gabeko kide anitzeko familiak edo nukleorik gabeko ahaideak.....	21
Kide bakarreko familia-etxeak.....	21
Okupazio-prekarietatearen eragin txikiena: guraso izandako ezkontideen familia-etxeak.....	21
Prekarietate ekonomikoa	21
DSBE/EPOren mendetasun handiagoa dago kide bakarreko familia-etxeetan, familia-nukleoan oinarrituta ez dauden kide anitzekoetan eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan	22
Oinarrian senar-emazteak edo bikotea duten etxeetako erreferentziazko pertsonak diru-sarrerarik ez duten kasuen proportzioa handia da	23
Etxebizitza eskuratzearekin loturiko alderdiak	23
Jabekidetzat nagusitzen da ezkontideen eta seme-alabak dituzten gurasoen familia gehienetan	23
Jabetza kide bakar batek izatea kide bakarreko etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan	24

Alokairuaren garrantzia mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan, eta, nabarmenago, ahaiderik gabeko kide anitzeko etxeetan	24
Jabekidetzak garrantzi gutxi dute guraso ez diren ezkontideen etxeetan.....	24

2. Familien eta familia-etxeen arazoak Alderdi espezifikoak.....27

Etxebizitza-arazoak	27
Kalte handien jasaten duten taldeak: ahaiderik gabeko kide anitzekoak, nukleorik gabeko ahaideen familiak, mendeko seme-alabak dituzten nuklearrak eta nukleo anitzekoak.....	27
Diru-sarrerekin loturiko arazoak.....	29
Kalte gehien jasaten duten taldeak hauek dira: ahaiderik gabeko kide anitzekoak, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak eta nukleo anitzekoak. Hala ere, arazoaren zenbait alderdik garrantzi berdina erakusten dute kide bakarreko etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan.....	29
Lanarekin zerikusia duten arazoak.....	31
Talde kaltetuenen artean, hauek nabarmentzen dira: gurasoen familia-etxeak, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak eta nukleo anitzekoak.....	33
Guraso ez diren ezkontideen familia-etxeetan, lanarekin loturiko arazoak dakartzan lehentasunezko intzidentzia nabarmentzen da.	33
Seme-alabekin loturiko arazoak	34
Arazo honen intzidentzia seme-alabak dituzten familia-etxe mota ezberdinetan	34
Adineko biztanleak zaintzarekin loturiko arazoak	36
Adineko pertsonak zaintzarekin loturiko arazoaren intzidentziak maila altuenak ditu mendekoak ez diren seme-alabak dituzten gurasoen eta guraso bakarreko familietan	38
Osasunarekin loturiko arazoak	38
Osasunarekin loturiko arazoaren intzidentzia handiagoa da ahaide ez diren kide anitzeko familietan, nukleorik gabeko familia-etxeetan, guraso izandako ezkontideen etxeetan, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan eta nukleo anitzeko etxeetan.....	40
Bizikidetzarekin loturiko arazoak	41
Bizikidetzarekin loturiko arazoaren intzidentzia soilik urruntzen da batez besteko kopuruetatik mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan. Hala ere, arazo larrien % 5eko maila ere gainditzen da nukleo anitzeko etxeetan.	41

3. Familien eta familia-etxeen arazoak Arazo nagusiak.....43

Langabeziarekin eta lanarekin loturiko arazoak guraso ez diren ezkontideen familia-etxeetan.....	46
Langabeziarekin eta lanarekin loturiko arazoak, baina gabetia ekonomikoaren eragin handia ere bai ahaide ez diren kide anitzeko familietan eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan	46
Langabeziarekin eta lanarekin loturiko arazoak, gabetia ekonomikoan eragin handirik izan gabe baina bai gaixotasun/desgaitasun arazoetan, mendekoak ez diren seme-alabak dituzten etxe nuklearretan eta nukleo anitzekoetan	47

Langabeziarekin eta lanarekin loturiko arazoak, gabezia ekonomikoetan eta gaixotasun/desgaitasun arazoetan eragin handia izan gabe, mendeko seme-alabak dituzten gurasoen etxeetan.....	48
Gaixotasuna edo desgaitasuna, baina baita arazo ekonomikoak eta etxebizitzarekin loturiko arazoak ere nukleorik gabeko familia-etxeetan	48
Arazorik gabeko familia-etxeen proportzio altua kide bakarreko familietan eta guraso izandako ezkontideen familietan. Intzidentzia handien dute gaixotasunarekin edo desgaitasunarekin loturikoek (nahiz eta kide bakarreko familietan gabezia ekonomikoek eragin esanguratsua izan)	49
4. EAEko familien eta familia-etxeen zaintza-kargak	50
5. Familiak babesteko neurrien berri izatea	56
GEHIGARRI ESTADISTIKOA	63
ERANSKINA: ALDERDI METODOLOGIKOAK	64
Alderdi orokorrak.....	64
Familia-nukleoa	64
Oinarrian senar-emazteak edo bikoteak dituzten nukleoen alderdi zehatzak	65
Familia-nukleoren barruan dauden harreman motak.....	65
Nukleoren jatorria	65
Seme-alaben arteko harremana	65
Familia-nukleoa edo etxearen oinarrian sartuta ez dauden pertsonak.....	65
Erreferentziazko pertsonak	66
Jarduerarekiko harremana	66
Diru-sarrerak eskuratzea	67
Etxebizitza edukitzeko erregimena	67
Minusbaliotasun-egoerak egotea	67
Mendetasun-eskalaren posizioak	67
Etengabeko mendetasuna duten biztanleak	68
Beste egoera sozio-demografiko batzuk.....	68
Jatorrizko nazionalitatea	68
Ikasten ari diren biztanleak	68
Hainbat gizarte-arazori buruzko adierazleak	69
Gizarte-arazoen garrantziari eta larritasunari buruzko adierazleak	69
Garrantziaren indizea.....	70
Larritasun-indizea.....	70
Programa publiko jakin batzuk ezagutzea	70
Neurrien beharra	70
Neurrietan parte hartzea	70

Neurrien erabilera.....	70
-------------------------	----